

ttipi ttapa

2002ko otsailaren 21 • XXII. urtea

320



**Jose Jabier
Sestorain**

03

Ateka Beltza Ekimeneko kide da Jose Jabier Sestorain leitzarra. «Maxurrenea eta Guardia Zibila-ren kuartela herritarrentzat berreskuratzea da gure helburua».

**Iñaki Mihura
Arraiozko atleta**

28

Hiru urte bertzerik ez ditu lasterka Iñaki Mihurak eta 19 urterekin, ez du areriorik bere kategorian Nafarroan. Orain, Espainiako txapelketarako prestatzen ari da.

04

Gero eta istripu gehiago gure lantegietan



SAN FRANCISCO JAVIER Ikastetxe Publikoa



cpelizon@pnte.cfnavarra.es

• ELIZONDO •

☎ eta Faxa: 948 581 808

Matrikulatzeko epea: Otsailaren 25etik martxoaren 15era
ESKOLA PUBLIKOA AURRERANTZ!

g e h i t u
 www.gehitu.net

INFASIS 902 200 096

INFORMAZIO ETA LAGUNTZA GAY ETA LESBIANENTZAT



Asociación de gays y de lesbianas del País Vasco
 Euskal Herriko gay eta lesbianen elkartea



Lankidetzta eta Tolerantzia
 Zinegotzigoa

DATUAK...

• Ateka Beltza ekimena
Leitzan sortu zen, Guardia
Zibilaren kuartela herriari
itzultzea eskatzeko
asmoarekin. Herrian
infraestruktura eskasia, eta
beharra badela aipatzen dute
Ateka Beltzako kideek.

• Duela gutti Guardia Zibilari
Leitzan bertze egoitza bat
errentan emanen diotela jakin
izan dute Ateka Beltzakoek.
Maxurrenea etxea izanen da.
Duela bi urte bertan Kultur
Etxerako egokitzea eskatu
zen, baina Diputazioaren
planak bertzelakoak dira.

Jose Jabier SESTORAIN *Ateka Beltzako kidea*

«Ateka Beltza eta Maxurrenea etxeak herritarrentzat berreskuratzea eskatzen dugu»

Rakel GOÑI

Zein da Ateka Beltza taldearen helburua?

Leitzako guardia zibilek okupatzen duten etxea, herritarren erabilpenarako berreskuratu nahi dugu. Hasiera batean, oinarrian, ideia nagusia hau zen, baina pasa den astean jakin izan dugu, diputazioak erabaki duela Leitzako Maxurrenea etxea Goardia Zibilari errentan ematea eta berriro bildu behar izan dugu planteamendua zeozer aldatzeko. Funtsean gauza bera eskatzen dugu, gauza da orain arazoa bikoitza dela.

Mobilizazioak edo ekintzak antolatu al dituzue?

Prentsaurrekoa iragarria genuen otsailaren 20rako baina egoera aldatu denez atzeratu dugu. Ekimena osatzeko bidean dago, ideiak eta lan ildoak finkatzen ditugunean iragarriko dugu. Printzipioz edozeineri irekia da gure ekimena.

Nolakoa da herrian Guardia zibilen jarrera?

Guardia zibilen jarrera gero eta txarragoa da, edozein gauzarengatik isunak jartzen dituzte, kontrol pila bat

«Guardia Zibilaren koartela eta Maxurrenea leitzarren diruarekin eraiki ziren»

daude, jakina da ere pestetan gertatu zena, taberna batean pistola batekin meatxatu zituzten gazte batzuk. Eguneroko elkarbizitzan oztopoa bilakatzen ari dira.

Zein da orain Goardia Zibilari errentan eman nahi zaion etxea?

Maxurrenea, alde zaharrean dagoen etxe bat da. Bere garaian partikularren etxea zen eta hauek Amazabal Patronatoari zeditzea erabaki zuten, hezkuntzarako. Patronatoan eliza, udala, Sarrioko langileak eta enpresa bera eta komertzioak zeuden. Herriaren beharrei aurre egiteko sortu zen patronatoa. Frontoia eta institutua eraiki zuten Nafarroako Gobernua laguntzarekin. Urteak pasa ahala Maxurrenea Nafarroako Gobernua esku gelditu da. Garai batean ere zahar etxe bat egiteko eskatu izan da. Azkeneko 2 urtetan kultur etxea egiteko proiektua aurkeztu

da, eta ondotik jakin izan dugu Diputazioak guardia zibilari errentan eman nahi diola.

Herritarrek izan ditzaketan beharretarako nahi dituzue bi etxeak?

Bai, herriak baditu behar franko eta berriz azpiegitura eskasia bada. Leitzarren beharretarako Maxurrenea eta Ateka Beltzako etxea ematea aldarrikatzen dugu. Bi etxe hauek herritarren diru eta izerdiarekin eraiki dira eta ez da bidezkoa erabilpen ezberdin batetarako erabiltzea. Egoera berria sortu zaigu, aldarrikapea funtsean berdina bada ere planteamendua zeozer aldatu da.

Ateka Beltzako etxea herriarentzako berreskuratuz gero, zertarako erabiliko litzateke?

Herritarren artean eztabaidatu beharko litzateke. Ideia batzuk badaude. Leitzako elkarteekin bildu eta baikoitzaren beharrak zeintzuk diren ikusita halako erabilera emanen zaio.

Ateka Beltza al da koartelaren izena?

Ez, inguruan dauden lurren izendapena da. Egokiena iruditu zitzaigun, ekimena izendatzeko.



EZBEHARREN KOPURUA HANDITZEN DOA

2001etik bortz langile hil dira Baztan Bidasoan lan istripuetan

Urtetik urtera lan istripuen kopurua handitzen ari da Euskal Herrian. Iaz, halere, hildakoak %24 guttiago izan ziren. Otsailaren 2an izan zen eskualdeko azken ezbeharra. 22 urteko etxalartar batek bizia galdu zuen lan istripuan Beran. Seguritasun baldintzetan lan egitera behartzen du, 1996an Espainian indarrean jarri zen Lan Istripuen Prebentziorako Legea. Halere, oraindik enpresa aunitzek ez dute legea betetzen. Euskal Herrian izaten diren lan istripuen %1'5a gertatzen da Iparraldean, enpresen kopurua urriagoa baita.

Rakel GOÑI

Jesus Mari Irisarri, 22 urteko gazte etxalartarrak otsailaren 2an bizia galdu zuen lan istripu baten ondorioz. Zerrenda amaigabe batean, bera izan da sartzen azkena, baina zoritxarrez ez da azkenekoa izanen. 2001etik gaurdaino 5 langile hil dira lan istripuetan Baztan Bidasoan. Enpresa guzietan bada lan arriskuen prebentziorako plana, baina enpresa guziek ez dute bere osotasunean aplikatzen. Seguritasunean inbertitzea askorentzat dirua galtzea da. *“Inguruko enpresa gehienak tikiak dira eta ezin dute lan arriskuen prebentziorako teknikari bat eduki. Horregatik mutua-sozietateak arduratzen dira lan hori egiteaz”* azalzen du Jose Mari Arribillagak ELAko ordezkaria Baztan-Bidasoan.

LAN ISTRIPUAK GEHITU ZIREN IAZ, BAINA HERIOTZAK GUTXITU ZIREN
Euskal Autonomi Erkidegoan eta Na-

farroan 72.000 lan istripu baino gehiago izan ziren iaz. Horietatik 787 larriak izan ziren. Ezbehar larriak %5ean igo ziren. Halere hildakoen kopurua %24an jaitsi zen. Sindikatuen ustez gaixotasun profesional aunitz ezkutatatu egiten dira. Horregatik Espainiar administrazioari eskatu diote indarrean dagoen legea behar bezala betearaztea, lan istripuei aurre egiteko.

GIZARTEA GERO ETA KONTZIENTZIATUAGOA

Uste baino maizago gertatzen dira lan istripuak, zoritxarrez ere, uste baino hurbilago. Prebentzio lana beharrezkoa denaren kontzientzia gero eta handiagoa da, halere, oraindik lan handia egin behar da lantegietan. Sektore guziek elkarrekin egin beharreko bidea dela erran daiteke, administrazioa, patronala, sindikatuak eta langileak, indarrak batu behar dituzte, lan istripuak ahal den moduan galarazteko. Sindikatuen ustez arazo la-

ri hori konpontzeko premia hor dago. **601.000 EUROKO GASTUA** Langile batek istripua izaten duenean familiak dira sufrimendua pairatzen dutenak, ustegabeak izaten baitira. Aipatu beharreko datua da ere, lan istripuek eta eritasunek sortzen dituzten diru galerak. Iaz Hego Euskal Herrian 601.000 euro gastatu zituen administrazioak.

LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO LEGEA

1996an sartu zen indarrean Espainian Lan Arriskuen Prebentziorako Legea. Geroztik ezbeharrak handitzen joan dira eta inspektzioen ondortik jakin izan denez, oraindik lante-

gien ehuneko handi batek (%15 EA-En) ez du legea betetzen. Istripuen gorakada nabarmen hau prekarietateari egozten diote sindikatuek. Halere, langileek ere erantzunkizuna dutela azpimarratu nahi da. Euskal Herrian lan istripua duten langileetatik %1'5a Iparraldekoa da.

ERREPIDETAN EZBEHAR AUNITZ

Langilea etxetik lanera eta alderantzizko bidea egiten duenean istripurik izango balu, hori ere lan istripua da. Gidari lanean aritzen direnak ere ongi dakite errepideak dituen arriskuak. Gure inguruan, N121ean eta A15 autobidean istripua izan dutenen kopurua gero eta handiagoa da.

LAN ISTRIPUAK NAFARROAN (baja behar izan zutenak)

SEKTOREA	1996	1997	1998	1999	2000
Nekazaritza	364	356	411	368	327
Industria	4.943	4.970	5.736	6.253	6.467
Eraikuntza	2.127	2.242	2.481	2.905	3.245
Zerbitzuak	2.524	2.990	3.436	4.034	4.522
DENETARA	9.958	10.558	12.064	13.560	14.561



AITOR AROTZENA

Lan arriskuen prebentziorako oinarritzko ikastaroa egiten ari dira ELA sindikatuko 12 delegatu Beran

Julen MITXELTORENA

LABeko arduraduna



"langileen segurtasuna zuzendaritzaren ardura da"

Julen Mitxeltorena LAB sindikatuko ordezkaria da Baztan-Bidasoan, bere ustez "langile guztien segurtasuna lantegian zuzendaritzen ardura da". Sindikatuetatik erran denez ez dute aztertuko, kulpak norena den istripu bat gertatzen denean, epaileak eta inspektzioak hortaz arduratu behar dutelako. "Guk esigitzen dugu lantegietan behar diren segurtasun neurriak izatea. Prekarietatea, azpikontratazioa, ordu extrak sartzea eta abar baztertzea, segurtasun eza adierazten dutelako eta horren ondorioz lan istripuak gertatzen direlako." aipatzen du Mitxeltorenak. LABeko ordezkariaren ustez konpetitibitatea nagusitzen da beti eta segurtasuna bigarren planoan dago. "Ordua da legetan segurtasun elementuak lehen mailan paratzeko. Jesus Mari Irisarriren familiari doluminak eman eta elkartasuna adierazi nahi diogu. Eskualdean lan istripu gehiago ez gertatzearen alde lan egiten dugu" erraten du Mitxeltorenak.

Jose tx Fernandez Martinez ELAko ordezkaria Saveran

"Istripuak aunitzetan ezin dira aurrikusi"

ZEIN IKASTARO EGITEN ARI ZARETE?

Lan arriskuen prebentziorako oinarritzko ikastaroa egiten ari gara ELAko Berako egoitzan. Inguruko lantegietako 12 delegatu inguru 7 ortziraletan elkartuko gara goizeko 9etatik 2etara. Ikastaroan ELAko ordezkari bat izan da, lan inspektorea, Nafarroako Lan Osasuneko teknikoak eta baita mutua-sozietate bateko ordezkaria.

ZERTARAKO BALIOKO ZAIZUE IKASI DUZUENA?

Lehendabiziko gauza delegatuak kontzientziatzea nahi da. Lantegietan dau den arriskuak ikustea eta kontuan har-

tzea. Enpresariarekin kolaboratzeko bali du ere. Dena den lantegi aunitzetan ez dute prebentzio lana egin nahi. Ni Saveran ari naiz lanean eta momentuz ez dugu kexarik, baina ikastaroan dau den langile batzuk diotenez, zenbait lantegietan trabak bertzerik ez diete jartzen prebentzioaz solasten direnean. Nik uste dut gehienetan ahal dena egiten dela, istripuak aunitzetan ezin dira aurrikusi, hori dela eta, zaila da hauek galeraztea. Bertze batzuetan ordea, ezer gutti egiten da lan arriskuen prebentziorako.

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 7.100 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

www.topagunea.com

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena, Rakel

Gofi. **Berriemaileak:** Mikel Illarregi,

Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar,

Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isa-

si, Patxi Iriarte, Jaione Otxandorena,

Alba Fernandez, Franck Dolosor, Mar-

gari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Car-

los Mortalena, Ana Mari Etxeberri, Fre-

derick Berruet, Angela, Iñintza eta

Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txope-

rena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxel-

torena, Aitor Arotzena, Asier Gogor-

tza, Rakel Gofi.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Eus-

kal Herriko Kontsumitzaileen Antola-

keta...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde La-**

guntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta,

Arano, Areso, Baztan, Urdazubi eta

Sarako udalak, Zugarramurdiko Ake-

larre elkarte, Bortzirietako Euskara

Mankomunitatea, Malerrekako Zer-

bitzu Mankomunitatea, Zugarra-

murdiko Akelarre Elkartea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	21 €
Espainia	21 €
Ipar Euskal Herria	33 €
Europa	33 €
Amerika	103 €
Baztan, Urdazubi, Malerrekako, Leitza eta Areso	18 €



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Otsailan izandako sute larriak



Aspalditik ez genuen holako surik ikusten, ni ez naiz oroit holako su handiaz. Beldurra ere izan dugu, sua hurbildu da aintz lekutan.

Jean ANIOTZBEHERE Sarako auzapeza

Azkeneko sutea izan denean, 370 hektarea erre dira Saraldean. Horietarik 110 hektarea oihana izan dira, oihan berria eta oihan zaharra, eta gainontzekoa larrea. Guk hemen ez dugu debekatu su tti-kia egitea, baina jendeak badaki badirela mementuak ez dela surik eman behar. Haizea delarik, idortea delarik... Sutea hasi denean ponpiera alde guzietatik etorri dira sua itzaltzerat. Herriko langileak ere egon dira laguntzen. Gau guzian ibili dira guziak su itzaltzen, baina artzain eta pottoka zain gutti ikusi ditugu su itzaltzen. Aipatu nahi dut ere ez ditugula su pizten ere ikusi. Saran norbaitek larreak erretzeko laguntza nahi badu udalean badugu talde bat, komisione bat. Duela bi urte montatua dugu. Komisione honetan ibiltzen dira auzapezaren ordezkaria, artzainak, pottokazainak eta oihanzaina. Orain arte beti izan dute baimena, eta baimen hori izanik agerian ematen ahal da sua. Baina orain ez dakit zer pasatu den. Seguruenik ikusi dute denbora hain ona duikabe, sua emateko eta pentsatu gabe egin dute. Pertsuna horiek baimenik ez zuten su emateko, galdetua zuten baina ez zitzaizoten emana egun hortako. Arront arrisksua zen, haize sobera eta idorte sobera bazen eta halere su eman dute. Nork eman duen ez dakigu baina, su hortaz nor baliatzen den begiratu behar dugu. Aspalditik ez genuen holako surik ikusten, ni ez naiz oroit holako su handiaz. Beldurra izan dugu, sua hurbildu da aintz lekutan, borta batzuetatik hurbil ibilli da ere. Aditu dut Zugarramurdia etxe batzuetara ere ailegatu dela, eta gure langileak ere hor ibili behar izan dira. Jendeak baimenak galdegin behar ditu. Herriko Etxetik laguntza ematen zaie. Baina ezin denean surik eman, ezin da. Horrelako idorte eta haizearekin larreak su ematen zaionean, gauza aunitz jartzen dira arriskuan. Ez bakarrik animaliak edo baserriak, herritarren biziak berak ere arriskuan jartzen dituzte. Jakina da belarra berri behar dela eta horretarako sasiak, larreak garbitu behar direla, baina hori ere zintzotasunez egin behar da.



Lehen egunean su eman zioten lekua ez da artzainak ibiltzen direna

Santiago IBARGARAI Erratzuko alkatea

Erratzun jende aunitz bildu zen suteak itzaltzeko. Aspaldiko partez ezkilak jo genituen, badi-tu 23 urte Erratzun bizi naizela eta behin bakarrik entzun ditut su ezkilak. Herritarrek ahal zuten guzia eraman zuten sua itzaltzeko, antzarrazteluak, palak, aitzurrak... sua baserri batzuetatik arras hurbil ibili zen. Borta batzuk eta izilarren etxola erre dira. Izilariek pena handia izan dute, hainbertze urtetan, ia igandero gosaltzera joaten zirelako. Ez dugu ulertzen jendeak zergatik ez duen sua egiteko baimenik eskatzen. Makurrena da haizerik handiena denean ematen diotela sua. Beti erran izan dugu artzainak direla larrei su ematen diotenak, baina lehengo egunean su eman zioten lekua ez zen artzainen tokia, karretera bazter horretan ez da ardirik ibiltzen. Pentsatzen eri gara inguruan piromano, edo su ematea gustatzen zaion batenbat badela, ez baitu zentzurik erretzea su eman dioten eremua. Orain dena beltza dago, paisaia hile dago, erre diren arbolek ez zuten balio handirik baina bere ekantoa bazuten. Edozein egunean gure etxeari ematen diote su.



Lehen neguan beti hartzen zituzten langileak mendiak zaintzeko

Bittoriano JAUREGI EHNEko ordezkaria

EHNE ez dago inondik ere suteak hola egitearen alde, are guttiago holako eguraldiarekin. Gertatzen dena da bazterrak gero eta zikinagoak daudela eta arrizku hori hor dela. Edozeinek eman dezake su eta batzutan izanen da nekazaria, ardura gutti duena eta bertzetan bertze norbait, igual piromanoa delakoz. Administrazioak ere behar ditu bere aldetik neurri gehiago paratu. Gauza ona izanen litzateke ere, dezbrozatzea, makina batzuekin ahal den lekutan desbrozatu eta xehetu. Hori lurrarendako ona da ongarr bezala gelditzen delako. Bertzalde eskatzen dute nekazari bakoitzak borts lagun biltzea larreak erre nahi badiu, hori ere batzutan arras zaila da, gero eta nekazari guttiago dago. Gertatu izan da ere, batere arriskurik ez dagoenean, batek su pixar bat ematea eta foralal kristoren multa jartzea. Hori ere ez da bidezkoa, horrek ez zuen kalte egiteko gogorik. Garai batean Baztanen negualdean beti hartzen zituzten langileak mendiak zaintzeko, orain ez da egiten, bigilatzeko lekuak baziren ere, Otsondon... hori dena kendu da.

• IRAKURLEAK MINTZO •

Mendialdeak bere eskola izan dezan

Euskal Herriko hainbat herrietako ikasle, irakasle, guraso eta herri-tarrez osaturiko talde batek «Euskal Herria Bere Eskola» ekimena abian jarri zuen iazko urrian. Nafarroa Garaiko mendialdean hainbat lagun bildu gara zonalde honetan kanpaina aurrera ateratzeko asmoz. Momentuz Leitza eta Beran osatu dira lan-taldeak. Kanpainak honako mezuak mahai gaineratu nahi ditu:

- Hezkuntzak Herriaren eta herritarren garrantzia bezala dauka. Areago bere burua berreraikitzeke lanean diharduen Euskal Herriaren kasuan. Era berean, Leitzak, Berak edota Elizondok dituzten beharrei egokitutako hezkuntza eredua nahitaezkoa da.

- Euskal Herriari hezkuntza sistema propioa izateko eskubidea zor zaio. Eskubide hori his-

torian zehar ukatu egin zaio, ordea. Errealitate objektiboa hau da: espainiar eta frantziar hezkuntza sistemak daude indarrean euskal lurraldeetan, eta horrek geure herrietan eragina dauka.

- Euskaldunon hitza eta erabakia zein den ha-maika aldiz adierazi da gai honi dagokionean. Jai giroan, kale mobilizazioetan edota eguneroko lan neketsuan, Euskal Herriak Bere Eskola aldarria lau haizetara zabaldu da.

- Azkeneko hamarkadetan euskaldunok, bi-tarteko juridiko-politikorik gabe (Areago, hauek askotan kontra edukita), hezkuntza sistema propio baten aldeko urratsak emateko gai izan gara. Mendialdeko herrietan euskarazko lerroak irekitzeko gai izan gara; hezkuntza eredu berri bat lantzen saiatu gara; helduen euskalduntzerako euskaltegiak sustatu ditugu; gure kultura bultzatzeko ekimenak landu ditugu... Azkeneko mezu hori nabarmendu nahi dugu bes-

te edozerren gainetik.

Gauzak honela, urrats berriak emateko aukera eta beharra daukagula uste dugu. Eta urrats berri horiek Herri Mugimenduen eskutik etorriko direla sinisturik gaude. Euskal Herriak Bere Eskola ekimenaren bidez herri bakoitzak (geure kasuan Leitzak, Berak edota Elizondok) behar duen hezkuntza eredua jorraztearen beharra azpimarratu nahi dugu; era horretan jorratuko baitugu Euskal Herriak behar duena. Bat egin dezala, beraz, ideia hauekin bat datorren orok.

Euskal Herriak bere eskola ekimena**Miguel Lizardi**

Berri txarra ailegatu zaigu azken egunotan Argentinatik, Miguel Lizardi laguna hil dela jakin baitugu. Berak bizpahiru aldiz erabilitako Ttipi-ttaparen atal honetxetaz ba-

liatu nahiko nuke berari buruzko zenbait gogoe-ta jakitera emateko. Non hobekiago berak hainbertze maite zuen aldizkarian baino.

Orain dela 50 urte inguru joan zen Miguel Lizardi Argentinara bizitzera. Geroztik bertan bizi izan da, San Miguel de Tucuman hirian. Orain dela seiren bat urte, 1996an, Ttipi-ttapan argitaratutako artikuluren bat zela medio hasi genuen gure harremana. Harrez geroztik gutun eta kontu anitz elkartrukatu izan ditugu. Orain, etxean altxatuta dauzkadan bere gutunei gainbegiratu bat eman diodanean, ondorio pare bat ateratzeko aukera izan dut, agian nerretzat orain arte, berri samin hau ailegatu zaigun arte, oharkabean egon direnak: hermina eta euskara leitu eta idazteko izan zuen gogoa. Bere gutunek, nonnahitik hartuta ere, hermina dariote, aukera guzietaz baliatzen baita bere herria goraitzeko. Ez dago dudarik,

anitz maite zuen Miguelek Igantzi eta bere inguru ere. Nerretzat, hain ere, euskara idatzia bereganatzeko izan zuen gogoa eta trebetasuna izan da ondorioz aipagarria. Lehen aipatu dudan herriminarekin zerikusirik izanen badu ere, zenbat lagun ezagutzen dugu, lauogei urterekin, euskaraz leitzeko eta, zailagoa dena, idazteko prest dagoena? Miguelek 50 urte Argentinan pasatu ondok, euskaraz ia batere egin gabe, naturaltasunez eta konplexurik gabe hartu zuen euskara idatzia eta Ttipi-ttapa ireki zion bere jakinmina nolabait hasetzeko leihoa. Horrelako harpidedun gutti behar ditu Ttipi-ttapa bere hamabortzeroko lana justifikatzeko.

“Gure adiskide maitea” izaten zen beti Miguelen gutunetako hasierako agurra. Bada, hemendik, zure aldizkaritik, besarkada handi bat, adiskide.

Oskar TXOPERENA.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlaizak
Orma antzinak	Moldurak
Leioak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

“Abujandakoa” Mazizoa
Zahar antzekoa Txapekina

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

J. RAMOS

Zolak akutxilatuta eta barnizatzen dittut

☎ 948631342 BERA • ☎ 948637172 LESAKA

OBRA PROIEKTUAK

- ✓ Etxe berriak eraikitzeke
- ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
- ✓ Urbanizazio proiektuak
- ✓ Obra-zuzendaritza

Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan

BIDASOA
arkitektura bulegoa

Bittiria, 45 • ☎ 948 637 503 • LESAKA

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



NABARRA, 2002ko Otsaila

«Kirikoketa erritmo baten izena da, sagarra zanpatzean sortzen zen erritmo horren onomatopeiaren erramoldea».

«Aspaldian, Baztango ia kasik herri guztietan dolareak bazeuden. Orain belagiak dira nagusi, baina etxekoei aditu izan diet horko lur sail guztietan garai batean sagardiak landatzen zituztela».

«Arizkungo Pierreseneako dolare etxean sagardoa egiten zuten garai batean. Sagarra guztia zanpatu eta dolareko tresna guztiak garbitzen zituztelarik,

sagar zukua egina zegoenean, besta egiten zuten. Pierresenearen kasuan plaza ondoan dagoenez kirikoketa herri guztian entzungarria zen. Etxeko larraineko pareta gainera goititzen ziren eta bi gizon, sagarrak zanpatzeko mazak eskuetan zituzteka, erritmo bat jotzen hasten ziren, tiki, taka, tiki, taka...».

Patxi LARRALDE
Jo ala Jo taldekoa
NABARRA 02-02

• 11 GALDERA LABUR •

Goio Hualde *Urdazubiko lezetako arduraduna*

Urdazubiko lezeetan sorginarik al dago?
Ez dut uste.

Turisten artean, nork ematen ditu propinarik handienak?
Frantsak eta Ipar Euskal Herrikoak.

Jendea adi dago azalpenak ematen dituzunean leze barruan?

Gehienetan bai, beldurra emanen dut, hortaz adi daude.

Urdazubiko lezetan lanean ariko zirela uste al zenuen?

Ez inondik ere. Ezagutzen nituen baina ez nuen behin ere pentsatu hemen akitzea.

Zugarramurditik eskaintza ona egiten badizute, bazoaz Urdazubitik?

Ez, ez. Leku polita da Zugarramurdi, baina Urdazubin gustora nago.

Urdazubin lezea, monastegia; Elizondon?
Beheitiko karrika, Jaime Urrutia, as-

ki garbi ikusten da saltzaileen tokia zein zen, etxeak...

Elizondoko alkate izendatzen badi-zute zer moldatuko zenuke?

Zerbait egin dezake edo?

Eta Urdazubiko alkate bazara?

Hori Urdazubikoendako. Lan aunitz egiten dute, mugitzen dira.

Txokotoko zubitik zure burua bota al duzu noizbait?

Ez dakit inorketan, koadrilakoak botatzen dira.

Autobidea Elizondotik Urdazubira?

Ez! Errepidea pixket moldatzea aski da. Bihurguneak zuzendu, baina autobiderik ez.

Otordu on bat egitera nora joanen zinateke?

Hunat, Urdazubi aldera, ingurua arraz polita da, bada zer ikusi.



MARTIKO
Gure baserrietako
produktuak

© 948 625016 • Fax 948 625036
Alkaiaga Industrialdea • BERA



Kanttonberri 1, bis • BERA
Fax - Tel: 948-631218

Bizikleta Tailerra
errepide, mendi, trekking
eta haurrendako bizikletak
Arropa eta osagarriak
Salmenta eta konponketa



© 948631076 • BERA



BORTZIRI
UNSION ANAIK
sukalderako haltzariak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • LESAKA
Tel eta Faxa: 948 637 266

H. Lopez
iturgintza

- Kalefakzioa
- Gas Instalazioak
- Iturgintza industrial
- Ureztatze sistemak

Tel.: 948 45 21 26
Mug.: 617 34 99 44
NARBARTE

INGURUMENA

Mila Hektarea baino gehiago erre dira hiru egunez bazter hauetan

laz Nafarroan urte osoan erre zena baino gehiago

tti-ttapa

Nafarroako Gobernuko Ingurumen, Lurralde Antolaketa eta Etxebizitza Departamentuak egindako kalkuluen arabera 1.168 Hektarea erre ziren Malerreka, Bertizarana, Baztan eta Bortzirietan hiru egunez, otsailaren 1etik 3ra. Datu hau ikaragarria da, kontuan hartzen badugu 2001. urtean Nafarroa osoan izandako suteetan 742 Hektarea erre zirela.

Suak Baztanen izan

zuen eraginik handiena, 16 sute garrantzitsu izan baitziren, 751 Hektarea kaltetuz. Horietatik 164,3 Hektarea zuhaitzak ziren. Erratzun 100 Hektarea erre ziren eta Itxusiko Erreserba Naturallean 60. Malerreka eta Bertizaranan, kontuan hartzeko 13 sute izan ziren, 395 Hektarea erre zituztenak (kasik erdia, 194 Hektarea zuhaitzak ziren). Kalterik handienak Ituren eta Nartabarten izan ziren. Bortzirietan, sute handi

bakarra Ibardingo gainean izan zen, Beran. Nafarroan 22 Hektarea erre zituen (10 Hektarea zuhaitzi), baina Urruña eta Azkain aldean suak hagitzek kalte gehiago egin zuen eta ardiak ere hil ziren.

Bertze aldetik, Nafarroako foruzaingoak legez kanpo egindako suarengatik dagoeneko hogeit denuntzia egin ditu aurten, horietatik hemezortzi Malerreka eta Baztan-Bidasoa inguruan.


NAFARROAN IZANDAKO SUTEAK (1998-2001)

	1998	1999	2000	2001 ⁽¹⁾	2002 ⁽²⁾
SUTE KOPURUA	400	315	504	363	78
ERRETAKO EREMUA (ZUHAIZTI HA.)	160,46	101,29	234,21	160,72	368,6
ERRETAKO EREMUA ZUHAIZTIK GABE	519,78	454,76	765,47	581,93	799,4
DENETARA					
ERRETAKO HAK.	680,24	556,05	999,68	742,65	1.168

⁽¹⁾ Lehendabiziko 9 hilabetetan, urtarritik irailera

⁽²⁾ Otsailaren 1etik 3ra Baztan, Bertizara, Bortzirietan eta Malerrekan bakarrik

EUSKARA



Euskara eskubide osoz izeneko kanpainari ekin dio Oinarriak erakundeak

Euskararen telefonoa ere martxan paratu du Behatokiak

tti-ttapa

Gure hizkuntza guzior eskubidea dela adieraziz «Euskara ofiziala eskubide osoz!» izeneko kanpaina abiarazi du Oinarriak erakundeak. Euskaldunei hainbat aholku ematen die Oinarriak-ek: lehenengo solasa beti euskaraz egitea, gaztele- ra hutsezko errotulazio eta seinaleak euskaratzea, kide garen elkarteetako jakinarazpenak euskaraz jasotzea eskatzea, euskarazko inprimakiak eta zerbitzua eskatzea edota ordainagiriak eta jakinarazpenak euskaraz bidaltzea eska-

tzea. Euskara ez dakitenei berri, euskara ikastea beraien eskubidea izateaz gain, berriantzat eta guzior- tzat abantaila dela jakinarazi nahi zaie. Beraien seme-alabenda- ko ere «jakitea ez jakitea baino hobea de- nez, euskarazko ira- kaskuntza hautatzea» gomendatzen zaie.

Bertze aldetik, Hizkuntz Eskubideen Behatokiak euskararen telefonoa martxan para- tu du. Hizkuntz eskubi- deen urraketei konpon- bidea emateko tresna zuzen eta eraginkorra izan nahi du doaneko zerbitzu honek.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 15-19etara
• Ortzegun eta ortziralean, 8etatik 15etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328 • 133346. Faxa: 948133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- Bideragarritasun planak



Zalain Auzoa
© 948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

Lanchas

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera © 948630735 - 607 406781



BERA

Herriko Etxeak 2002 urteko aurrekontua onartu du

Behin-behineko aurrekontua 3.825.819 eurokoa da (636.562853 pta)

Asier GOGORTZA

Orain bi aste onartu du Udalak 2002 urterako behin-behineko aurrekontu orokorra.

Aurten Udalak aurriksuak dituen gastuen artean hauexek dira aipagarrienak: Herriko Etxeko zaharberitze lanak hastea (22.000.000 pta edo 132.222 €), Herriko Bestetarako 9 milioi pezeta (54.091 €), eta berte 2 kabalgata, kalderero eta inauterietarako. Jakina denez haurtzaindegiko obrak ere egitekoak dira aurten, eta horretarako ia 53 milioi ptako (318.536 €) aurrekontua bideratuko du Udalak. Zalaingo parkea ere akautzeko asmoa dago, frontoia eta guzi, eta 10 milioi pezeta (60.101 €) jarriko du Udalak. Iaz egin zen barandillen lehiaketatik irabazle atera zen diseinua ere laster kanpoan ikusi ahal izanen dugu. Lau milioi terdi pezeta bideratu dira horretarako.

Azkenik, gastu garantzitsuekin akautzeko aipatu behar da Kaxernako eraikuntza zaharberitzen hasteko ere diru partida bat hitzartu duela Udalak, 4 milioi pezeta, hain zuzen ere.



JON ABRIL-EK UTZIA

La Caixak planetarioa plantatuko du Kultur Etxean

La Caixa fundazioak ikasleentzat aski interesgarria izaten ahal den instalazio bat jarriko du heldu den otsailaren 25etik aitzinera Berako Kultur Etxean. Lau metroko altura izanen duen iglu formako planetario honetan konstelazioak, zeruaren mugimendua, eguzkiaren ibilbidea eta eguzki sistemaren barreneko dimentsioak ikusten ahalko dira bertzeak bertze. Beti ere irudi proiektatuen bidez egingen dira azalpen guztiak. Antolatzaileek bertze publiko guzientzat ere ireki nahi izan dute erakusketa, eta beraz, martxoaren 12tik 15era edozeinek egingen ahalko du bisita unibertsoa irudikatzen duen planetario honetara.

HITZALDIA

Harkaitz Cano idazle donostiarrek New York-era egindako bidaiaren kronika egingen du liburutegian

Harkaitz Cano idazlea bere azken liburuen aurkezpena egitera etorriko da Berako Liburutegira. Piano Gai-nan Gosaltzen izeneko liburu honetan New Yorkera egindako bidaiaren kronika egingen du Canok, eta Kultur Batzordeak bidai-liburuaren inguru-

ruko zikloaren barnean sartu du hau ere.

Joan den urteko irailaren 11 baino lehen izan zen Cano New Yorken, baina pentsatzekoa da egun horren ondorioei buruz ere mintzatuko dela bere solasaldiian.

FLASH

Zia auzoko ur hornidura

Udalak Pagozelai enpresari eman dizkio Zia auzoko ur hornidura herriko sarean sartzeko lanak, 33 milioi pezetatan (198.334 €).

Martxoaren 2an, Onddo eta Zioren

Onddo eta Zioren musikak taldeek kontzertua egingen dute martxoaren 2an Kultur Etxean, arratsko 10,30etatik aitzinera.

Patxi Gonzalezen hitzaldiak

Lamixine BATek antolatutako, Patxi Gonzalezek hitzaldi bat eman zuen joan den otsailaren 15ean etxe barruko armonia eta osasunari buruz, eta otsailaren 22an trukea izanen du hizpide. Hurrengo otsailaren 28an, berriz, kolorea hartuko du gaitzat, koloreak gure egoera animikoetan eta lanean nola eragiten duen kontatzeko.

Igerilekuen moldaketa

Udal igerilekuen moldaketa kontratatzeko lehiaketa hutsik gelditu da, aitzinetik paratutako epean ez baita inolako eskaintzarik aurkeztu. Orain, publikotasunik gabeko prozedura negoziatuaren bidez egingen da eta guttienez hiru eskaintza eskatuko dira. Aurrekontuak goiti egingen duenez, gastu hori ere igotzea erabaki du Udalak aho batez.

iriarte-Echandi, s.l.

- Aholkularitza
- Artekaritza
- Aseguruak

Kanttonberri | BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

ALZURI

- Sukalde tresneria eta opariak
- Landare eta loreak

Tel.: 948 630 370 • BERA

JAIONE - GAZTEGIA

Altzate, 19 • 948630786 • BERA

LESAKA



ARGAZKIAK: TELLETXEA ETA OROÑOZ

Umore ederra izan da iñauterietan.

Eguraldia lagun, iñauteri ederrak joan dira aurten

Zakozarrek bi ibilaldi egin zituzten

Aitor AROTZENA

Aspaldiko urteetako iñauteri beroenak izan dira aurtengoak, eguraldiari dagokionez behinpein. Honela, arropaz arinagoak ikusi ahal izan ziren moztorro aunitz. Larunbatean, Gazte Asanbladak trikitalariek egindako kalejiran Euskal Herriko herri ezberdinetako iñauterietako pertsonaiak karrikatu zituzten: Miel Otxin, joaldunak, zahagidantza, Momotxorro...

Igandea, herriko pertsonaiaren eguna izan zen, noski. 50 zakozar baino gehiago zeuden aurten izena emanak eta horregatik, bi ibilbide egi-

tea erabaki zuten: beheko karriketan gaiteroekin ibili ziren batzuk eta goitikoetan musika bandarekin. Azkenean, denak plazan bildu ziren belar idorra kentzera.

Astelehenean karrozak izan ziren ikusgai eguerdian, baina goizean goiz Fraindarrak ere lanean hasiak ziren (aurten gutti xamar, 14-15 lagun ateri ziren). Eguerdiko karroza desfileak gero eta jende gehiago biltzen du plazan ikusle gisara, baina aurten bertze urteetan baino karroza gutxiago ikusi ziren. Akinoetan-etik tanke eta guzi

etorritako Bin Laden-en jarraitzaileak izan zen seguruenik lanik gehien eskatzen zuena. Tebeoetako pertsonaiak, mariachiak, garagardo besta zaleak, hondartzako zaindaria panpoxak bikini hutsean... Bertze moztorro aunitz ikusi ziren, baina karrozak gutti.

Iñauteri ikusgarriak joan dira, baina dena ez da polita izan. Zarandia karrikako bizilagunak haserre daude, Keskilla iturriko harrizko bola indarrez ateri eta xehetu zutenekin eta bada bertzeren bat, hezur guziak osorik zituela etxera bueltatu ezin izan zuena.

FLASH

Emakumearen Eguna

Everest mendia igan duen lehendabiziko emakume euskalduna, Edurne Pasaban tolosarra ekarriko du Lesakako Herri Eskolak martxoaren 6an. Diapositiba emanaldia eskainiko du Matxinbeltzenez arratsko 8etan. Martxoaren 8an afaria izanen dute Kattun. Izen ematea martxoaren 5a baino lehen egin behar da.



Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Beheko Plaza 8, LESAKA

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa • LESAKA
© 948 637826

ANIA
jantzeria
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
© 948627573 • LESAKA

XATURETXEA
3641
JATETXEA
Tfnoa: 948637027 LESAKA

ETXALAR

Giro ederrean eta eguraldi onarekin joan dira iñauteriak

Castillo Suarezek euskara normalizatzeko plana burutuko du

Joseba eta Nerea

Beldur ginen aspal-ditik aurtengo iñauterietan eguraldiak lagunduko ez zigula, batez ere aitzineko egu-netako euriak ikusiz, baina azkenean eguzkiak bere aurpegirik onena erakutsi zigun iñauterietako astean.

Astelehenean, 9ak jo eta gero, 60 bat lagun Haritzpe ostatuan bildu ziren eguna indarrez hasteko gosari eder baten inguruan. Gosalondoren, 30 laguneko 2 taldetan banatu eta goiko eta beheko auzoetara joan ziren, beheko auzokoak oinez eta goikoak Jabier Iturbidek eramandako organ. Aurtent nobedade bezala Armitx eta Santsineko Borda baserriak izan ziren gazte hauen bazkaltzeko topagune. Afaltzeko berriz Haritzpen bildu ziren bi taldeak eta berandurarte luzatu zen arratseko besta.

Asteartean, nahiz eta giro ederra bizitu zen, bertze urtetan baino ka-



ARGAZKIA: IRATI LUJUAK UTZIA

Asteleheneko gosariaren ondotik auzoz auzo eskean ibili ziren gazteak.

roza guttiago ikusi ahal izan zen. Hala ere, gure herrian izan genuen bertze herrietan ere ego-na den Bin Laden. "Beti-Idor" submarinoa ere agertu zen plazara eta Indio eta Bakeroen arteko borroka ere bizitu genuen. Guardia Zibila besta oztopatzen saiatu zen arren, ezin da ukatu herritar guziek giro aski ederrean pasatu genuela eguna.

Iñauteriak gazteen-tzat bakarrik ez direla erakutsiz, Larraburuko jubilatuek ere ospatu zuten eguna. Asteartean, 53 lagun bildu ziren Larraburua elkartean Anttoniok prestaturiko bazkarian. Badira 10 urte bederen bazkaria egiten dutela eta nahiz eta azkeneko urtetan ez diren mozturrotzera animatu oraindik mantentzen dute ohitura hau.

Euskara normalizatzeko plana udalean

Castillo Suarez Bortzirietako hizkuntz teknikariak Etxalarko Udalean euskararen erabileran normalizatzeko plana Udaletxean bertan aurkeztu ondotik, onartua izan da. Plan honen helburua Udaltzategiaren etako esparru guzietan (herriaren eta udalaren harremanetan, bertze

FLASH

Jose Manuel Vicente bake epailea

Azkeneko 4 urte haue-tan herriko bake-epaile izan den Jose Manuel Vicentek bertze 4 urte-tarako berri du bere kargua. Legearen arabera aurtent bake-epaile berria izendatu behar zen eta bera izan de-nez aurkeztu den bakarra, Udalak bere eskaera onartu du, bertze lau urtetarako eginkizun hori bere esku utziz. Aipatu, ordezkio bake-epailearen kargurako ez dela inor aurkeztu eta ondorioz hutsik geldituko dela.

Lan istripua

Joan den otsailaren 2an Berako Sedenor enpresan izandako lan-istripuan bizia galdu zuen Jesus Mari Irisarri 22 urteko gazte etxalartarrak.

administrazioekiko harremanetan, barne administrazioko hizkuntzalanetan, udalak zerbitzu euskalduna kontratatzerakoan eta euskara beraren kalitatean) euskara ohiko bihurtzea da. Normalizazio plana aitzinerat ateriz gero, Udalak UEMAn sartzeko aukera izanen du. Castillo Suarezek bi hilabete epea izanen du plana burutzeko.

LESAKA

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K/82 - 31780 BERA (Nafarroa)

Tel.- Fax: 948. 63 10 27

Tfnoa: 948 637 127

LESAKA

Javier Manterola

TEKNIKO

INSTALATZAILEA

iturgintza • gasa • kalefakzioa

Tfnoa: 948 630 031 • BERA

bortziRUDI

BERA

FOTOKOPIAK • ENQUADERNAZIOAK • PLASTIFIKAZIOAK • FAXA • E-MAILA • SKANNERIA • ARLOZKO MUNTAK • ETSIBOTULAK • PUBLIZITATIA

Estegara 26 behea

Tel.- Fax: 948 63 15 21

Herria ezagutuz

Mikel Retegi izanen da Herri Taldeko zinegotzi bakarra

Oskar TXOPERENA

Heldu den larunbatan, arratseko 8,30etan izanen da Biltoki Elkar-
teko urteko Batzar na-
gusia. 200 bat bazkide-
ek, urteroko gaiez gain
aretoa eta jantokia mol-
datzeko aurrekontua ez-
tabaidatuko da. Molda-
keta handietan sartua
dago elkarteak azken bo-
lada honetan, 2001ean
sukalde guzira berri-
tu baitzen, eta aurreko
guzira moldatzeko as-
moa baitago. Ea sukala
beza ongi geldit-
zen den aretoa ere.

Sua Oilarriarren

Iñauteetako larunbat arratseko ordu batak aldera sua piztu zen Oilarri gar parajea, Akoz trainen parean. Herria afarearen azken poka-duta zegoen jende anitz hurbildu zen bertara, baina haisera batean haizearengatik in-dar ikaragarria hartu zuen sua ia bere gise-ra itzali zen, ondoko be-lagietara ailegatu ze-nean.



OSKAR TXOPERENA

Mozorro talde polita bildu zen aurtengo iñauteetan ere, Piedadeko baseliza-
zaren ondoan ateritako argazkian ikusten ahal den bezala. Iñigo eta Gari-
koitz soinu-joleekin batera, etxez-etxe ibili ziren ortziral arratsaldean eta la-
runbatean. Bertzalde, iñauteetako larunbat arratseko urteroko saioa ikusi
ahal izan genuen, betiko lagun taldeak antolatuta, autengoan “Gran Prix”
izenekoa. Haurrak, berriz, ohiko moduan, hiru egun izan zituzten iñauteetaz
gozatzeko: Iñauteetako larunbat arratsaldea, otsailaren 6an eskolan egin-
dako iñaute-besta eta Ortzegun Gizen eguna. Eskolan irakasle eta ikasleen
artean egindako antzeslana egiteko lan ederra hartu dute.

**Mikel Retegi
zinegotzi berria**

Mikel Retegi izanen da Herri Taldeko zinegotzi berria, Josetxo Txoperena dimititu berriaren ordeiz. Otsailaren 8an izandako Udal bilkuran izendatu zuten.

Urte terdi eskasa gelditzen zaio karguan, heldu den urtean izanen baitira hauteskundeak.

Labea

Betidanik Latsaga
karrikako lehendabizi-
ko zenbakia eraman

duen Labea etxea erori egin da. Bere jabeek etxea moldatzeko asmoa zuten eta horretarako Herrikoetxearen baimena zuten, baina, lanak egiteko inguruko lurrak mugitzen hasi direnean erori egin da.



Sarrolako
fabrika

1939an, gerra akautu zen urtean, egin zuten Agustín Cabra donostiarrek eta bere semeak, Fernandok, Sarrolan fabrika egiteko baimen eskaria («*solicitan autorización para instalar una fábrica de chacinera en esta localidad*»). Horretarako, lurra Elena Echaide Aguinaga Merkatenekoari erosiak zizkion aipatutako parajea. Fabrika ez zen, ordea, gaur egun ezagutzen dugun bezalakoa. Hiru eraikin egin ziren hasiera batean, proiektuak diotenaren arabera: Bat, solairu bakarrekoa, zerriak hiltzeko eta ertzebateak edo enbutidoak egiteko; bertzea, bi solairukoa, ertzebateak idortzeko erabiltzen zena (geroago bertze hiru solairu eman zitzaizkion); eta hirugarrena, langileek erabiltzeko. Herriko jende anitz aritu zen garai hartan fabrikari lanean, baldintza gogorretan gainera. 1970an fabrikaren erabilera aldatu egin zen, baja eman baizitzaion ertzebate fabrikari eta bakailua lantzen hasi. Geroztik, erabilera eta enpresa anitz ezagutu ditu fabrikak. Orain zenbait urte daramazki itxita.

 Makinaria eraikuntza
Moldaketak eta despiezeak
Mantenimendu mekanikoa
Torno, fresadorka, errektifikadorka

Igantzikoa Bentak • ☎ 948 627572 • Faxa: 948 637508

zapatadenda.
kalotxa.
osagarriak.
konponketak.

Legia 36 Bera 31780 Nafarroa 948 631516

ZUBIONDO JATETXEA

Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
saqardotegia jatetxea saqardotegia

PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

ARANTZA

Zuhaitzaren Eguna ospatu zuten eskolako ikasle eta irakasleek

Laurehun bago landatu dira Ekaitza eta Xapatinbordan eskola eta auzolaneko lagunen artean

Nerea ALTZURI

Gure ingurumena zaintzeko ahaleginetan hamaika lan egin, ikusi eta ikasten dugu, baina inoiz ez da aski. Maiz, urruti begira jartzen gara ingurugiroari eginiko kalteak moldatzeko bideak ikasi nahiean, baina norberaren etxe ataritik ere izaten da zer egin maila umilago batean izanagatik ere.

Otsail hasieran, bago zuhaixken landaketa egin du herritar sail batek. Denera 400 landare ateri ziren Ekaitzako Erkatza inguruan auzolanean eta Xapatinbordan landatu ziren denak. Otsailaren 5ean, Zuhaitzaren Egunaren kariatara, eskolame eta irakasleek ingurumenean erreparatzeko ikasgaia kanpoan egin zuten, 100 bago landatuz. Gainerako zuhaixkak, Herriko Etxearen ekimenez ohituraz izaten diren auzolan jardune-

an landatu zuen herritar talde batek. Ekintza honek beti izan du tokia herrian. Izan ere, zuhaitzaren bizian belaunaldiak daude, bizakietan bezalaxe; zuhaitza mozteten den momentutik bertze batek toki berria hartu behar du. Gure inguruek eta norberaren osasunak eskertuko dute.

Zioren Beran

Bertatik bertara gozatu dugu herriko Zioren taldearekin kontzertu sailetan. Bertze hitzordua hurbil aski badugu, Berako Kultur Batzordearen ekimenez, martxoaren 2an, larunbatarekin, Berako Kultur Etxean izanen baita Onddo talde beratarrekin batera. Arratseko 10:30etan abiatuko da kontzertua. Iazko udazkenean sortu zen Zioren taldea. «Urtu dira hormak» izeneko lana karrikaratzu geroztik, Arantzán, Beran,

Lesakan, Iruñean, Beragan eta Abadiñon kontzertuak eskaini ditu. Iazko urte hondarrean, Nafarroako Bertsozale Elkartek eta Gor diskeak elkarlanean eginiko «Nafarroa Hitzak dantzan» lanean Manolo Arozenarekin batera egindako «Gure Patxaran» kantua aditu dugu. Orain zuzenean, maketako kantuak eta abesti berriak eskainiko dituzte Berako Kultur Etxeko oholza gainean.

Herriko Etxeko teilatua

Erlaitz Eraikuntza enpresak Herriko Etxeko teilatua berritzeko lanak eginen ditu udaberrian hasita. 36.190,74 euro-



XABI ZUGARRAMURDI

Auzolanean hainbat zuhaitz aldatu dira.

tako aurrekontuarekin, bi hilabetezeginen dalana. Maiatzaren 31rako teilatu berriarekin luzituko du eraikinak.

Pilotalekua estaliko da

Herriko Etxetik hartutako berriekin segituz, herriko pilotalekua estaltzeko proiektua egi-

ten hastera doaz, lan honetarako dirulaguntza jaso ondotik. Bertze aldetik, Nafarroako Gobernuari dirulaguntza eskariak egin dizkio Herriko Etxeak: langile langabetuak kontratatze-ko, eskulan ikastaroko eta mediku eta erizainen kontsultan berogailu sistema aldatzeko.

SALEZONES UDANA, S. L.

***Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest***

Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabilioia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

**ALBERGIA
JATETXEA**

© 948 634179
ARANTZA

SAROB

okindegia

SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

MALERREKA


Zubieta eta Lotzabian arteko errepide zatia ofizialki inauguratu du Herrilan kontseilariak

Alkateek Doneztebetik Leitzarako bide osoa moldatzea eskatu zioten

tipi-ttapa

Doneztebetik Leitzara doan NA-170 errepidean, Zubieta eta Lotzabian artean egindako moldaketa lanen inaugurazio ofiziala egin zuen otsailaren 7an Jose Ignacio Palacios, Nafarroako Gobernuako Herrilan, Garraio eta Komunikabideen Departamentuko kontseilariak. Sail horretako Zuzendari Nagusia, Alvaro Miranda, eta Bideen Zerbitzuko, Jesus Gonzalez Albero ere ekitaldian izan ziren, inguruko zenbait alkaterekin batera. Egia errateko, bideak bazituen hilabete batzuk zabalik, baina, ohikoa denez, zabalitze ofiziala egiteko lruñetik etortzearen esperoan egon dira.

Bi kilometro terdi eskas moldatu dira eta, horregatik, alkateek Doneztebetik Leitzarako errepide guzira, 29 kilometroak, moldatzea eskatu zioten kontseilariari. Bide berriak zazpi metroko zabalera du eta metro bateko bide bazterra bi aldeetara. Lanak Mariezkurrena erakuntza enpresak egin ditu, 3,3 milioi euroko aurrekontuarekin (553,6 milioi pezeta). Bide berriak lau aldiz igarotzen du Ezkurra erreka gainetik. NA-170 errepidea hobetzeko eta moldatzeko plangintza orokorraren barnean daude lan hauek, A-15 autobidea eta N-121errepidea lotu nahi baitira bidea konponduta.



DONEZTEBE

Baserrietan nahiz karrikan, giro ederrean joan dira Iñauteriak

Doneztebeko Missa aukeratzeko jaialdi jendetsua egin zen igandean

ttipi-ttapa

Eguraldi ederra lagun, giro ezin hobean joan dira Doneztebeko Iñauteriak. Otsailaren 8an, ortziralarekin, baserrietan barna ibili ziren gazteak eskean goiz-arratsalde, trikitalarien laguntzaz. Eskolako neska mutikoek mozzorro desfilea egin zuten. Beti Alai txarangak alaitu zuen bazkari eta afariko giroa. Titi Ostatuak mozzorro hoberenari bi gosarien saria eman zion.

Larunbatean, Corco txarangaren dianaren ondotik, gosari-bazkaria egin zen. Arratsaldean karrozak ikusteko modua izan zen. Gero, iñauterietako ekitaldirik jendetsuena izan zen eskolako frontoian, Miss Doneztebe aukeratzeko



ARGAZKIA: FOTO ZALDUA

Miss Doneztebe hautaketak ikusmin handia piztu zuen iñauterietan.

ko jaialdia, hain zuzen. Hainbat jende bildu zen harmailetan herriko *neskarik* panpoxenak ikusteko asmoz.

Miss Doneztebe aukeratzeko jaialdian egin zen zozketa. Lehenda-

biziko saria, zerri bat, 1027 zenbakiari egokitu zitzaion eta bigarren saria, bi lagunendako afaria Belarra jatetxean, 2020 zenbakiari.

Igande goizean ere izan zen Beti Alai txar-

rangarekin eta trikitalariek poteatzeko modua. Iñauteriak akitzeko, bazkaria egin zuten trikitalari eta Sebastian Lizaso eta Jokin Sorozabal bertsolarien parte hartzearekin.

EZKURRA

Euskararen erabilera: Zaharrek asko eta gazteek gutxi

Peio ZESTAU

Malerrekako Euskera Batzordearen birtatez euskararen erabilera neurtu da Malerrekako herrietan. Karrika neurketa honetan ikusten denez, Ezkurraren heldu eta zaharren artean ia %100ak euskaraz hitzegiten du, baina haur eta gazteen artean bataz-beste %60ak bakarra euskaraz hitzegiten du kaleran, hauek denek euskaraz jakin arren. Bageneki zein polita egin duen, ez etxean bakarra, baizik eta kaleran ere euskaraz hitzegitea...

Jubilatuena bazkaria

Hilaren 10ean, herriko jubilatuak beraie eguna ospatu zuten. Urtero bezala, ospakizuna mezarekin hasi zen eta ondoren Barranka jatetxean bazkaldu zuten giro ederrean.

Langabetuen kontratua

Udalak eskatu dio dirulaguntza Nafarroako Gobernuari langabetuen dagoen jendea kontratatzeko. Orain arte, dirulaguntza honetan, Nafarroako Gobernuak, langileen soldaren %100a ordaintzen zuen eta Udalak materiala eta erremintak bakarrik jartzen zituen. Aurretik dirulaguntza portzentaia txikiagoa izan zen omen da.

SUNBILLA

Osasun kontsulta Herriko Etxean jartzeko proiektua martxan dago

Alba eta Jaione

Osasun kontsulta Herriko Etxean jartzeko proiektua martxan dago.

Otsaileko udal plenoan erabaki egin zen kontsulta jartzeko tokirik aproposena udaletxea izan zela. Orain arte medikuaren etxean kokatzen zen kontsulta, etxe hau enkan-te batean saldu zen arte. Etxeak jabe berriak zituenez, kontsulta he-

rriko etxeko lehenbizi-ko pisuan paratuko dute, lehen posada edo ostaldea egon zen lekuan. Solairu hau hutsik zegoen eta, beraz, mediku eta erizainaren kontsultak egiteko obra egin beharko da.

Udaletxea berritzean jarri den igogailua aprobetxatuz, kontsultara ailegatzeko erraztasun gehiago izanen da, orain arte ez baitzen batere errega.



MALDAERREKA, S.L.

**FUNERARIA
ZERBITZUAK**
DONEZTEBE BEILATOKIA

Bortzirriak eta Malerrekan
24 orduko zerbitzua beilatokian
eta etxean prezio guzietan

Trasladoak Iruñea, Donostia, Irungo
ospitaletatik edozein herrietara

☎ 900 704704

☎ 948 637404



Sarrera BERAtik da

Alkaiagako industrialdean

Sastrin karrika, 3.2 - 3.4

31789 LESAKA

Tfnoa. 948 630 537

Fax. 948 631 443

**Kolore eta neurritan
aukera haundia**



***4.000 m²ko erakusketa
mobleak ikusteko***

Larunbat arratsaldetan irekia

HEZKUNTZA

Eskualdeko zenbait ikastetxe eta udalek dirulaguntzak jaso dituzte Iruñetik

Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuaren eskutik

ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuako Hezkuntza eta Kultura Departamentuak 353 milioi pezetako (2,12 milioi euro inguru) dirulaguntza onartu die Nafarroako hamalau udalei, 0 eta 3 urte bitarteko Haur Hezkuntza Zentroak sortzeko eta eraikuntza lanak egiteko. Santiago Arellano, Hezkuntza Departamentuko Zuzendari Nagusiak onartutako laguntza hau joan den urteko aurrekontuetan sartua da. Eskualdeko udalei dagokienez, bakarrik Berakoak jaso du subentzioa kontzeptu honengatik, 48.037.888 pezeta edo 288.713,52 euro, zehazki. Berako kasuan, gainera, dirulaguntza urte batean baino gehiagotan eman beharrekoa da eta bakarrik 2001. urteari dagokiona jaso du Udalak, hau da, %25a.

Bertze aldetik, joan den urteko abenduan Hezkuntza Departamentuak Lehen Hezkuntzako eskola bazuetan egin behar diren lanak ordaintzen laguntzeko subentzioa onartu zien Nafarroako hameka herriri lan orokorrak egiteko (zurgin lanak, zabalteak, iturgintza, teilatuak...). Leitzako eskolarendako 3419.545 pezeta edo

20.551,88 euroko dirulaguntza emanen da.

Kirol Instalazioak eta Bigarren Hezkuntzako zentroak

Kirol eta Gaztediaren Institutuarekin elkar lanean egindako kirol instalazioendako ere dirulaguntzak onartu ditu Hezkuntza Departamentuak. Nafarroa osoan lau herriri eman die laguntza eta gure inguruan Leitzak bakarrik jasoko du. Kiroldegierentzako 15 milioi pezeta edo 90.151.82 euro jasoko du.

Azkenik, Bigarren Hezkuntzako bederatzi ikastetxek dirulaguntzak jaso dituzte beraien instalazioak hobetu eta moldatzeko. Horien artean, Berako Toki Ona Institutuak 7.150.132 pezeta (42.973,16 euro) jasoko ditu.

Aurrematrikula kanpaina

Nafarroako Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza zentruetan aurrematrikula egiteko epea otsailaren 25etik martxoaren 15era zabalik izanen da. Batxilergoa eta Erdi Zikloan edo Goi Zikloan beranduago hasiko da aurrematrikulazioa.



ARGAZKIA: RAKEL GOÑI

Otsailaren 5ean, Berako Jesusen Bihotza eskolako Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleek bisita egin zuten ttipi-ttapa fundaziora. Aldizkariaren eta telebistaren funtzionamendua adi-adi ikusi eta entzun ondotik, hainbat galdera egin zituzten. Gero, argazkia ateratzeko prest azaldu ziren.

ola
SAGARDOTEGIA

- 250 lagun eserita
- Klimatizaturia

102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130

616 513 497

Pititi

ESKABAZIOAK

C/ Amelita 2
31740 DONEZTEBE (NAFARRA)

BELARRA

OSTATUA - JATETXEA

Amezia karrika
DONEZTEBE
Tfn: 948 45 03 06

GOIZUETA

Herriko Etxea eta zeharbidea hurrengo larunbatean inauguratuko dira

Herriko Etxearen ganbaran Goizuetako historiari buruzko erakusketa zabalduko da

Esteban AROTZENA

Zeharbidea eta Herriko Etxearen berritze lanak bukatu zirenetik aste batzuk igaro baldin badira ere, inaugurazio ofiziala oraindik egin gabe dago, eta horretarako hurrengo larunbata, otsailaren 23a, aukeratu da. Eguerdiko 12etan egingen da, eta herriko agintariez gain, bertan izanen dira, besteak beste, Gurea eta Palacios Nafarroako Gobernu kontseilariak eta inguruko hainbat herriko alkateak. Momentu horretan goizuetar guztiak bertan egotea omen da udalbatzaren nahia, baita ondoren egingen den hamaiketako ere. Dena den, larunbatean egun osoan eta igan-

dean eguerdira artean zabalik egonen dira Herriko Etxeko ateak bertan egindako lanak herriar orok ikus ditzan.

GOIZUETAKO HISTORIARI BURUZKO ERAKUSKETA

Herriko etxe berrituaren ganbara kultur ekitaldietarako erabiliko dela gauza jakina da, baina larunbatean herritarrek bertaratzen direnean bi ikuskizun jasoko dituzte: bat aretoa bera, eta bestea, XIV. mendeaz gerozko herriko historiaren zatirik aipagarrienak biltzen dituen erakusketa iraunkorra. Pili Untxaloren urtetako lanari esker, artiboetan lo zeuden hainbat kontu, herritarren begi aurrean egonen dira.



ESTEBAN AROTZENA

Sekulan baino ederragoa izan da aurtengo moztaroen taldea, berrogeita lau lagunekoa hain zuzen. Emakumeen partehartzea ere urtetik urtera igotzen ari da, eta igande gauean afaltzera elkartu zirenen heren bat sexu horretakoa zen. Argazkian, moztarrok Auxonbordako atarian.

Presidente berria Umore Onan

Gerardo Olló hautatu zuten Umore Onako

bazkideek hurrengo bi urteetan presidente kargua betetzeko. Leire Alsua, Asier Lujanbio, Xa-

bier Otaño eta Luis Azurmendi izanen dira komisioko beste lau kide berriak.

ARESO

Zubihaundieta inguruak obra osagarriak egiten ari dira

Ur putzuak sortzen dira nibelak ez daudelako ongi

Juana Mari SAIZAR

Zubihaundieta inguruak obra osagarriaren barne, errebisatzen eta moldaketa lanak egiten ari dira. Ur putzuak sortzen dira inguru horretan, lur zola, zubia eta bideak, ez daudelako nibelean. Arazo honi, irtenbidea bilatu nahian dabil Udala.

Eluseder handitu nahi da

Eluseder industrialdea handitu egin nahi da. Beraz, lehenbiziko pausuak ematen ari da Udala. Joan den astean, topografoa izan da eremuak markatzen.

Pareta berriak

Merkuko bidean hiru pareta berri egin nahi di-

ra. Bat, erreka inguruko igaraien gainean eta beste biak Ubideko Borda parean.

Sutea Usteluts inguruan

Otsaiaren 13an, goizeko 8:30ak aldera sute itiki bat gertatu zen Usteluts inguruan. Iruñeko Aralar parkeko profesionalak eta Leitzako



ARTXIBOKOA

Lehenbiziko aldiz, atautxi eta amautxiek Aresoko elizan ospatzen diren bataioetan ematen duten diru saria euroetan eman zuten. Oieren bataioan gertatu zen, otsailaren 10ean. Gainera, atautxi-amautxiak eskuzabalak izan ziren, haur bakoitzaren eskura bi euro eman baitzituzten eta gainerakoa bota egin zuten, nork bilduko.

su-hiltzaile boluntarioak etorri eta ordu pare

batez sua itzaltzea lortu zuten.

LEITZA

Maxurrenean kuartela?

Espainiako Barne Ministerioak eskari hori egin omen dio Nafarroako Gobernuari

Mikel ILARREGI

Hau idazten ari garen unean ez dago deus ziurtatuta, baina batetik eta bestetik aditu eta galdetuta, itxura denez, herrian dagoen kuartela Maxurrenara pasatuko litzateke. Dakizue-nez, guardia zibilek orain erabiltzen duten etxea herriarena da eta etxea eskuratzearen aldeko herri ekimena osatu zen. Halare, bat bateko us-tekabea izan da, udalak azkeneko bost urte hauetan kultur jardue-tarako (liburutegia, mu-

seo, kultur etxea) be-reganatu nahi zuen etxea, Nafarroako Go-bernuak Barne Ministe-rioari eskaini diola, bien eskaera (udala eta mi-nisteriokoa) mahai gai-nean zuelarik. Dena den, eta argitu bitarte-an udalak lehendik ha-sitako helburuekin ja-rraituko du (dauden kul-tur zerbitzuak hobetu eta eskaintza berriak landu) eta egoitza uztea eska-tuko du, alde aurretik hasitako bideari jarrai-tuz.

Informazio gehiago-



ARTXIBOKOA

Aspalditik udalak kultur ekintzetarako eskuratu nahi izan duen etxe honek, hemendik aurrera zer esan handia sortuko du.

ren esperoan, esan be-harra dago Maxurrene-aren erabilera (partiku-lar batek utzi baitzuen)

benefizientzi eta irakas-kuntzari lotutako egi-tasmotan izan behar duela oinarri.

FLASH

Dantza ikastaroa

Aurrera elkarteak anto-laturik, cha-cha-cha, merenge, salsa eta rock and roll dantza ikasta-roa jarri da martxan, otsailaren 23tik aurre-ra. Aldez aurretik Mai-mur eta Astiz liburuteg-ian izena emanda, ai-patutako egunean arra-tsaldeko 16:00etan es-kolan azaltzea besterik ez du.

Mendi irteera

Otsailaren 24an, igan-dea, mendi irteera Baz-tan aldera egingen da, Auza (edo Iparla) men-dira hain zuzen ere. Aur-tengo mendi plana onar-tu zen azkeneko urteko batzarrean.

Venezuelarekin elkartasuna

Otsailaren 23an, larun-bata, Venezuelarekin el-kartasun ekitaldia egi-nen da institutuko jan-toki ttikian. 5etatik au-rerra bi erakusketa iza-nen dira ikusgai: «Be-nantzio Azpiroz: Vene-zuelan ereindako Uitz-i-ko hazia» eta Flor Ma-teu Venezuelako mar-golariaren akuarelak. 7etan Meza elizan. 8,30etan ikusentzunez-ko saioa izanen da eta ondoren mahaingurua: «Venezuela, egungo errealitatea». 9,30etan Venezuelako musika-riekin kontzertu-dan-tzaldia izanen da. Kon-tzerturako txartelak 10 eurotan salgai Torrea eta Gaztañagan. Txar-telarekin guarapita bat dohain. Jasotzen den dirua Benantzio Azpiroz eta Jesus Urritzak Ve-nezuelan eraikitako es-koletako ikasleen hezi-ketarako izanen dira. Antolatzailea: Asnaven, Nafar-Venezuelar el-kartea, Leitzako kultur taldearen laguntzaz.

EUSKARA

Euskararen erabilera normalizatzeko plana martxan jarri da

Etxe izenak euskaraz jartzen dutenentzat dirulaguntza izanen da

Duela hilabete ba-tzuk udalak onartuta, «euskararen erabilera normalizatzeko plana» martxan jarri zuen. Egi-tasmo hau UEMAkoak diren udaletan onartu da. Proiektua, nahiz eta helburu garbiak izan, ez dago denboran epeka-tuta. Helburu nagusia udaletan euskararen erabilera indartzea, bul-tzatzea eta gehitzea da.

Horretarako barruko (herritarrokin) zein kan-poko harremanak (bes-te administrazioekin) euskalduntzeko kon-promezua hartu dute, euskara ez dakiten he-rritarren eskubideak errespetatuz. Erabere-an herritarroi, udaletxe-ra jo behar dugunean, euskaraz egin dezagun —ahoz nahiz idatziz— es-katzen digu.

Etxe izenak euskaraz

Euskara Mankomu-nitateak etxe-izenak euskaraz izan daitezen, dirulaguntza bat luzatu-ko du hala egiten dute-nei. Etxeari izena euskaraz jarriz gero, %50eko dirulaguntza ja-so dezake, baina gehie-nez 120 euro.

Euskara teknikari lanposturako deialdia

Apirilaren 22tik abuz-tuaren 9a arte, Leitzal-deko euskara teknikari lanpostua betetzeko deialdia onartu du uda-lak. Deialdiaren xehe-tasunak Leitzako uda-letxean eskura daitez-

ke. Eskabideak aurkez-teko epea martxoaren 27a da eta probak api-rilaren 9an burutuko di-ra.

Bestalde, Osasunbi-deak Nafarroan senda-gile izateko 56 lanpos-tu merezimendu-lehia-keta eta lekualdatzeen bidez betetzeko deial-dia onesten du. Honen ondorioz, Leitzari hiru sendagile dagozkio eta aurretik lanpostuak be-tetzeko euskarari da-gokion dekretua dela eta, horietatik bik Hiz-kuntz Eskolako 4. mai-la izan behar dute eta besteari euskararen ezagutza meritu gisa ba-lak. Deialdiaren xehe-tasunak Leitzako uda-letxean eskura daitez-

BAZTAN

Arizkunen, Laurentzeko bihurgunea zuzenduko dute

Herrilan Departamentua hainbat obra egiten ari da Baztanen

Rakel Goñi

Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraioa eta Komunikazio Departamentuak, Baztanen errepideak moldatzeko lanak adjudikatu ditu. 3,6 milioi euroko kostua izanen dute lanek eta Mariezkurrena Eraikuntzak egiten ditu. Lan batzuk aspaldi hasi zituzten, Arraiozko saihebidetaren kasu, laster bertzeak hasiko dituzte. Amaiurko bidegurutzearen moldaketa, 3 bihurgune arriskuetsuen zuzenketa, N-121-B errepidean 61, 64 eta 64,500 kilometroetan. Arizkuno Laurentzeko bihurgunea da hiru hauekiko bat, eta aspaldi eskatua zen moldaketa lanak egitea egon diren istripu larriengatik. Bertze lanen artean, Iruritatik, Arrazkazan eta Lekaroz aldera doan errepidea moldatu dute eta laster Azpilkueta, Orabidea, eta Erratzun hasiko dira obrak.



RAKEL GOÑI

Arraiozko herritik hurbil dagoen mendixka honetan, grua handi batek antenaren azkeneko puska jarri berri du. Ez dago argi antena zertarako den. Batzuen ustez espainiako telebista kate pribatu bat ikusteko omen da, bertzek diotenez telefono mugikorrendako izan daiteke. Bat edo bertze, lan ederra izan zuten langileek goiz osoan antena montatzen.

Marco Polo erakusketa Arizkunenean

Otsailaren 14tik 28ra Elizondoko Arizkunenea Kultur etxean Marco Polo erakusketa izanen da ikusgai. Bidaieri honen irudiaren bitartez Asiako mundu magikoak gogora ekarriko dira. Erakusketaren helburua jakinmina piztea izanen da. Erakusketa bortsaz titan banatua egonen da: "irudizkoa ametszkoa", "bidaia", "dena utzi eta aberastea", "arrotza arrotzen artean" eta "bere iraganaren etorkizuna". Erakusketa aste tartean irekia egonen da arratsaldeko 6etatik 8etara.

Beharrik euria egin duen!

Bazen euriaren beharra, idortea gero eta larriagoa zen bailaran, eta honek suteak larriak izatea errazten zuen. Zorionez euria egin du, gogoz gainera eta Baztan errekek eskertu du.

FLASH

Mendigoizaleen irteerak

Baztango Mendigoizaleak otsailaren 24an Okorora egiten dute ateraldia. Hurrengo mendi ibilaldia martxoaren 3an izanen da Egozkura.

Gazte Mendigoizaleak otsailaren 24an Elizondo, Bergara, Aintzialde, Peralats, Erratzu ibilbidea egiten dute. Martxoaren 10ean Izpegi, Buztanzelai, Izpegi itzulua egiten dute.

Izokinei seinalea jarri diete

Oronozko arrain haztegian 8.678 izokinei seinalea jarri diete otsailaren 4tik 7ra. 2001ean sortutako izokinak dira eta laster otsailaren bukaeran, Bidasoara botako dituzte. Izokin bakoitza markatu aurretik, lokartzen dute. Ondotik animalari "aleta adiposa" deritzona kentzen diote markatua dagoela jakiteko. Gero muturra molde batean jartzen dute eta sudur hezuraren mikro marka jartzen diote. Makina batek erranen du izokina ongi ala gaizki markatua dagoen. 1998an Irlandako arraindegietan Bidasoako 10 izokin identifikatu zituzten.

gaztelu scl
iturgintza
kalefakzioa saneamendua gasa
© 948 510086 / 510156 • fax: 948 610856 • LEITZA

Gierresena
OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa
Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

ORDOKI LIKOREAK
ERRETEGIA
Tel.: 948453410
Fax: 948453378
ARIZKUN
Parrilan egindako haragi eta arrainak

ONASKA
ERRETEGIA
Euskal sukaldaritza
Arrain eta haragia brasan
Bagordiko bidean • ELBETE
© 948 45 20 88

BAZTAN

Bagordiko inautea 35 urteren ondotik berreskuratu zen

Bagordiko bordetan eskean ibili zen Elizondoko gazte taldea

Rakel Goñi

35 urte pasatu dira Bagordin azkeneko inautea ospatu zenetik. Baserrietako jendea biltzen zen eskean aritzeko, janzkera berezia zuten ere, atorra eta gal-tza xuriak kaskabilekin eta zapelean loreak eta koloreko zintak eramaten zituzten. Baina ohitura hori galdu egin zen. Aurten Elizondoko gazte talde batek besta hau berreskuratzea lortu du. Bortz bordetan ibili dira eskean egun osoz, Ernotenea, Eriketenborda, Martinekoborda, Elizeturia eta Txantxinenbordan. Bagordiarrek aunitz eskertu dute ohitura hau berreskuratu izana eta harrera ezin hobea egin diete inauterian parte hartu duten 14 gazteei. Itziar Aleman amaiurtarra izan zen infernuko auspoa jotzen eta denen lagun Enriketenbordako astoa izan zen. Borda guzietan aunitz kantatu, dantzatu eta jan zuten. Egun akitzeko afari ederra



RAKEL GOÑI

Erratzuko San Pedro Xar basiliza duzue argazkian. Auzolanean erratzuarrren artean moldatu dute eta itxura ederra du egun. Amaiurren ere Pilarreko Amaren basilizaren moldaketa akitzeaz dago. Harriz harri lekuz aldatu ondotik, kanpotik zartatzea eta barnetik luzitzea bertzerik ez da gelditzen. Hainbertze lan egin ondotik, amaiurtarrek bizkerbesta ospatuko dute otsailaren 23an herriko elkarteetan. Diotenez garai batean teilatua eman ondotik eta erramua jarrita egiten zen bizkerbesta. Huntakoan ez dute izan astirik hain fite egiteko baina larunbatean han izanen dira.

egin zuten Txantxinenbordan, diotenez adinekoei prestatu zieten afaria gazteei. 2003an inautetako janzkera berezia guztiz berresku-

ratzeko gogoia dute Elizondarrek. Behin hasita hurrengo urtean hutsik ez dutela egingen iragarri dute. Aurten ibili ziren gazteen aitzak izan

ziren azkeneko aldiz inautea ospatu zutenak. Zaila da baina tartekaholako ohiturak berreskuratzen dira gurean ere.

FLASH



Ufestuek taldeak diska plazaratu du

Ufestuek Baztango Rock taldeak 15 egun barru bere lehen diska plazaratuko du. Iban Iparragirre (baxua eta ahotsak), J.I. Etxamendi (gitarra), Joseba Etxandi (bateria) eta Xabier Ospitalek (gitarra eta ahotsa) osatzen dute taldea. Taldearen lehen diska honek, Ufestuek izena du eta inguruko ostatu eta saltokietan egonen da salgai. Zortzi kanta izanen dira bertan, abestien gai nagusia kritika sozialarena izanen delarik. Diskaren iraupena 22 minutu eta erdikoa da eta Baztanen grabatu dute otsailaren 15, 16 eta 17an. Ufestuek Rock taldekoak kontzertuak jotzeko gogoarekin dauka, beraz norbaitek interesa balu hurrengo telefonora dei dezake kontratazioa egiteko: 948 453 248 (Xabi). Ufestuek diskoa, arrakastatsua izanen delakoan gaude. Zorte on!

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

ARMUA
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
☎ 948 599 131 - URDAZUBI

ZUBIRIA
MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnok: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)
Faxa: 948 581274

ARROPA DENDA
Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

LARRALDEA
SAGAROTEGIA
Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua
Telleria Auzoa • **LEKAROZ**
☎ 948 452121

URDAZUBI-ZUGARRAMURDI

Suak bazter guziak hartu zituen otsaileko lehen aste hondarrean

Javier Irigoien urdazubiarra da bi herrietako udal idazkari berria

Margari eta Koro

Dudarik gabe, bi aste hauetako berri nagusia Zugarramurdiko inguruetan piztu diren suteak izan dira. Urtarrilaren 31 eta otsailaren 1ean Itzalun, Loiara, Ahizparaz eta Urbiako hegoaldean hedatu ziren kalte haundiak eginenez; baina otsailaren 3ko (igande eguna) ikaragarrikoa izan zen: herria inguratzen duten mendi guztiak sutan ikustea, herria bera kezeta eta errautsez estalia, plaza guztia bonberoen kamioiez bete... aunitz urtetan ahantziko ez dena izanen da. Egun horietan Oronoz, Bera, Senpere, Azkain eta Landesetako suhiltzaileen laguntza izen ginen eta egitaz gorai-patu behar da gizon eta andre (andreak ere ikusi genituen) hauen lana, beren bizitza arriskuan jarri gure lurra babesten saiatu zirelako. Zorionez, nahiz eta familia bat baino gehiagok etxetik atera behar izan zuten, ez da ez pertsonik ezta etxebizitzarik kaltetua suertatu, hori bai, peningarria da Urbia, Malkor, Ainara eta Atxuriak hartu duten itxura.



ARGAZKIA: KORO IRAZOKI

Otsailaren 3an su-hiltzaileen sei zisterna eta hiru land rover ikus zitezkeen aldi berean Zugarramurdiko plazan. Denaren beharra bazen sua itzaltzeko.

Xaretako merkatua

Xaretako lau herrietako edozein produktu salgai emanen dituen «Xaretako Merkatua» martxan jarri nahi da. Erramu Igandetik hasiz eta urriko azkeneko igande arte, Ainhoan Dolareko plazan jarriko da, goizeko 9etatik eguerdiko 1arte. Merkatu honetan postua paratze-ko interesatuta daudenak Ainhoako Herriko Etxera deitu behar du, telefono honetara: 00-33559-29.92.60 eta 29.92.38.

Javier Irigoien urdazubiarra udal idazkari

Oposaketak gaindita ondotik bi herrietako

behin-betiko udal idazkari postua bete da. Idazkari berria Javier Irigoien Dagerre, Urdazubiko gaztea izanen da.

Akelarre elkarteak 841,42 euro ordainduko ditu ttipi-ttapa Zugarramurdi banatzeko

Zugarramurdiko Akelarre elkarteak bere gain hartu du TTIPI-TTAPA aldikaria herriko etxeetan banatzeak suposatzen duen gastuaren zatirik handiena. Berez, TTIPI-TTAPAK udalari eskatzen dio dirulaguntza, baina azken urteetan Zugarramurdiko Herriko Etxeak 10.000 pezeta (60 euro) bertzerik ez ditu ematen. Akelarre elkarteak gainerako guziaz ordaintzea erabaki du bertze urte batez. Aurten, 841,42 euro (140.000 pezeta inguru) emanen ditu Akelarre elkarteak.

ERREPIDEAK

Oieregiko tunela osorik zulatu dute dagoeneko

ttipi-ttapa

Zozaia eta Doneztebe artean N-121-A errepidean egiten ari diren lanen barnean otsailaren 7an Oieregiko tunela, 477 metrokoa, erabat zulatu zuten. Nafarroako Gobernuak Herriko Departamentuko kideak, Jose Ignacio Palacios kontseilaria, bertzeak bertze, azken leherketa ikusten izan ziren. Ekitaldian erran zutenenez, Narteko saihesbidea hasieran usate zena (2003. urtea) baino lehenago irekitzea aztertzen ari dira. Honela, Jesus Gonzalez Albero Bideetako Zuzendari Nagusiak erran zuen bezala, «Nafarroako zeharbidetxarretako bat kenduko litzateke».

Zozaia eta Donezteben artean obretan dagoen errepide zatiak bederatzi kilometro ditu eta 30,9 milioi euroko (5.145 milioi pezeta) inbertsioa egingen da. Hiru zatitan banatzen da. Lehenbizikoa, Almandozko tuneletik segidan, kilometro terdi du eta Mariezkurrena ari da lanean. Bigarrena Oronozko lotura da eta Azpiroz eta Saralegi enpresak egingen du. Hirugarrenak 6,2 kilometro ditu eta Oieregiko tuneletik Donezteberaino doa. Azpiroz-Saralegi, Padenasak eta Cavaosak osatutako enpresa elkarte ari da lanean.

BURKAITZEA

ostatu
erretegia

Zugarramurdiko bidea, 3 km.
© 948 599280 • URDAZUBI



GAZTANDEGIA

Etxeko
Ardi Gazta

Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA



© 948630052 • Zalain • BERA

SENPERE

Nazioarteko Open pilota txapelketa Gantxikin jokatu da apirilean

Euskal departamenduaren aldeko elkarteko kide da andere-auzapeza

Franck DOLOSOR

1994ko munduko txapelketak errezebitu ondoan, apirilaren 10 eta 14a artean Open lehiaketa iraganen da Gantxikin MBE Hitze-koa enpresa antolatuturik eta herriko etxeak lagundurik.

Gomazko eta larruzko paleta, xare, esku huskan, gizon edo emazte sailetan jokatu dira partidak arrats guziz larunbatean salbu, egun hortan egun osoan izanen direlako. 15 tantoko 2 partetan jokatu dira partida hauek. Beharrezkoa bada hirugarren parte 10 pundutan eginen dituzte jokoa luzatzeko.

Essor Basque

“Essor-basque” txirrindulari zoiñgehiagoka otsailaren 16tik 24rat iragaitekoa da. Usaian bezala herritik pastuko zaigu, bereziki Herburua (Cherchebruit) eta karrikatik 19, 21 eta 24ean arratsaldean.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Adin Ederra elkartekoak «Pyrénées Atlantiques» jatetxean bildu ziren gantzen urtarilaren 24an.

Autoen harat-hunatakt trabatuko dituzte kurtsek baina etxean berean goi mailako ikusgarria begiratzeko parada emanen dute aldi batez gehiago kirolariek.

Departamendua

Otsailaren 8an sortu zen Euskal departamenduaren aldeko elkarteko kidea da Chritine Bessonart andere-

auzapeza. Iparralde guziko alderdi, sindikata eta batasun aintzetarik 72 presuna bildu dira departamendu berria ardiesteko. Kantonamenduka antolatuko da talde berria, gazteen saila sortuko da eta udazkenekotz manifestaldi jendetsua prestatuko da. Duela hiru urte Baionako karriketan, 13.000 presunek baketsuki gal-

degin zuten departamendu berria sortzea.

Suteak

Azken aldian gertatu diren sute andanarekin lan ikaragarria izan dute herriko su-hiltzaileek. Espero dezagun izan diren desmasiek ohararaziko dutela suteak kontuz direla berdeen biziak arriskuan ematen direlako maiz.

FLASH

CDak uzten dira liburutegian

Compact-diskak uzten hasi dira herri liburutegian. Hamabortz egunez hiru har daitezke. Liburutegiak bere ateak idekitzen ditu astelehenetan 2ak eta 6ak artean eta asteazken eta larunbatean goizeko 10ak eta eguerdi artean.

Gazte Informazio Bulegoa

Gazte informazio bulegoa sortzea deliberatu dute herriko kontseilariak azken batzarrean. Lanpostu berria sortuko da hortaz okupatzeko eta bere eginbeharrak hezkuntza proiektuen koordinatzea izanen da eta baita ere udako zentroa eta ikasleen laguntzeaz arduratzea.

Besta frango otsailaren 23an

Otsailaren 23an besta frango izanen da herrian zeren ihauteriak egunaz ospatzen badira arratsaldeko 4etatik goiti, gero arratean SPUC kirol batasunaren bestaren aldi izanen da.

Lapurdikotzulia

«Lapurdikotzulia» auto zoiñgehiagoka apirilaren 5etik 7rat iraganen da Kantia aldean. Urtero bezala, senperat eta bisitari aintz elgarretaratu ditugu kirol ikuskitz honak.

Amorroin Kofradiaren besta

Martxoaren 3an ospatuko da aurten Amorroin kofradiaren besta. Herriarren inguruan Euskal-herriko hainbat kofradi bilduko da usaian bezala.

RESTAURANT MIGUEL

**Ongi zaindutako sukaldaritzak
Menuak aukeran**

MIGUEL JATETXEA
Ibardingo Lepoa
☎ 948 631209



ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO

☎ 948 581807 • 948 581853

SARA

Oihanean kalte ainitz sortu dute hilabete haserako suteek

Kasik ehun Hektara zuhaitzi hunkituak izan dira

Aña Mari eta Fred

Urtarrila hondarrean eta otsailaren hasieran sute haundiak agertu dira herriko mendietan. Lehena, urtarrilaren 30ean pixtua izan zen Larrungo mazelatan. Haize indartsua eta lehortea lagun sugarrak etxe batzuetik aski hurbil ailegatu ziren. Prefetak sua egiteko debekua deliberatu bazuen ere, hortik hiru egunera, otsailaren 2an, berritz sua emana izan zen bai Larrunen, bai Lizuniagako errekan eta Atxuriako mazelan eta inguruetan. Suhiltzaileek auzo herrietatik etorri behar izan zuten, Baiona, Pabe eta Landesetatik. Berez sua mendian pixten delarik larreak garbitzeko egiten da, baina aldi hontan oihana ere erre da. 30 Hektara pinadi, 6 hektara arbol landareekin erre dira eta bertze 60 Hektara haritz barna sua ibili da kalteak eginez. Jakinez Hektara bat landare 4.600-7.600 euro (30.000-50.000 libera) balio duela, herriko bazterrak berritz arboleztatuak ikusteko diru zama ederra beharko da eta ainitz urte.

Herriko oihanzaina den Van Meer jaunak su hauek nahita pixtuak izan direla dio, desmasiak egiteko nahiarekin. Egia da, zeren haize indartsuarekin eta lehortarekin su pixteak lanjera haundia zela.



Herriko langileek Harismendiko zubia berritu dute.

Aitzina egiteko modua errugbian

Txapelketaren lehen fasea bururatu ondoren, Sarako Izarra errugbi taldea bigarren fasean sartu da. Bere multzoan Landesetako bi talde ditu (Amou eta St-Jean-de-Marsacq) eta bakarrik hiruetako lehenak izanen du aitzina segitzeko parada. Oraingoan, Saratarrek jokatuak bi partiduetarik bat irabazi dute Amouren aurka (25 eta 16) eta bertzea galdu St-Jean-de-Marsacq-en (16 eta 12). Ondoko neurketa Amouko zelaian jokatu dute otsailaren 24an, eta bigarren fase honetako azkena martxoaren 10ean Anianiako zelaian St-Jean-de-Marsacq-en kontra. Emaizta hauen ondotik jakinen da Basurdeek aitzina segitzeko eskubidea ukanen dutenez

Herriko Etxea berritzeko lanak

Herriko Etxearen berritzeko obrak heldu den martxoaren 4an hasiko dira. Bertzeak bertze harrera tokia eta berogailuak berrituak izanen dira eta igogailua ezarria. Ondorioz, eta obrek irauten duten artean, Turismo Bulegoko eta Herriko Etxeko langileek beren bulegoak Denen Etxean finkatuko dituzte. Herriko Kontseiluko bilkurak aldiz, Gazten Etxean egingen dira, bai eta ezkontzak ere.

Apairuak ezindu edo xaharrentzat

Pertsona batzuen eskaerari erdiesteko, Herriko Etxeak apairu batzuek pertsona ezinduen edo xaharren etxetara ekartzeko posibilitatea aztertzen ari da. Ondorioz, Zahar Etxearen zuzendaritzaren gana hurbildu da jakiteko apairu

horiek bertan prestatzen ahal liratekenez. Bertalde, ikusirik Azkaineko Zahar Etxeak zerbitzu hori jadanik eskaintzen duela, auzapeza harat izatu da nola egiten duten jakiteko. Badirudi Saran ere zerbitzu hori lehen-baitlehen martxan ezarri nahi dela, baina arau bereziak konduhan hartu beharko dira horretarako.

Langileen tresnak

Lege berri baten arabera, baimen berezia beharrezkoa da, zerbitzu teknikoetako herriko langileek baliatzen dituzten tresnen gidatzeko. Ondorioz, "CSQUA Formation" erakundeak formazio egoia eman die, joan den azaro eta abenduan. Formakuntza hori 4 306.68 euro kostatu da eta Herriko Etxeak bere gain hartu du.

FLASH

Essor Basque

Urtero antolatzen den Essor Basque bizikleta lasterketa herriketik pasatuko da otsailaren 24an arratsaldeko 4etan, Igeltsutegiko Bidea hartuz.

Sagardotegirat

Azkaingo Altxa Lili, Berako Gure Txokoa, Etxalarko Altxata eta Sarako Gaztetxea batzen dituen Zirimolan taldeak sagarnotegira ateraldia antolatzen du. Martxoaren 16rako finkatua da afaria eta autobuserako izenak ematen ahal dira Herriko Etxeko edantegian hilabete hunen hondarra arte.

Ihaureriak

giro ederrean iragan ziren. Larunbatean etxeko itzulian harrera ezin hobea izan zuten gazteek. Kantari eta dantzan aritu ziren, baita Manex Bergarak eskribatutako bertsoak kantatuz. Igandean, dantza ikusgarria izan zen ta zanpantzarren epaiketa eta erretzea. Aperitifaren ondotik, ikastolak antolatu bazakaria



Alberto RETEGI
abokatua

Altzate 17
BERA
© 948 630 763

AZKAIN

Suak ehun hektarea erre ditu herriko lurretan

Telefonako potoak ere erre ditu Harroka gainekaldeko etxeen ondoan

Ihintza, Angela eta Eneko

Otsailaren 2 eta 3an iragan diren sute haundiek 100 hektarea erre dituzte Azkainen. Poliziak ez du oraino hobendunik galdezketatu. Harroka gainekaldeko etxebizitza batzu mehatxatuak izan dira bainan suhiltzaileen lanari esker ez da kalterik izan. Ez da abere hilik atxeman eta nehork ez du pottoka edo ardi hilik deklaratu. Su hiltzaile bat salbu, ez da nehor zauritua izan (begiko zurin goa erre zaio sua itzaltzen ari zelarik).

Holako su haundi bat ez da maiz gertatzen eta gertakariaren arrazoiak ikertzen baditugu 4 elementu nagusitzen dira. Lehenik bazuen 3 edo 4 urte nehork ez zuela surik pixtu lur horietan. Aurten lehorre haundia izan da eta bazuen aspaldi ez zela euririk izan. Hori baino lehenago, azaroan, hormak oteak idortu zituen. Azkenik, asteburu hartan izigarriko haizea zen.



Herriko zuhaiztiak garbituak izan ziren eta suak ez du kalte haundirik egin.

Su-pizteko xume bat aski zen dena erretzeko.

Herriko Etxeak 30 hektara zuhaizti badiu larrungo mazeletan. 10 Ha. garbituak zituen berrikitan eta horri esker sua zuhaiztien mugan gelditu da. Su-hiltzaileentzat lana errexten da, errexago baita sua itzaltzen zolan berean hartzen duelarik ezenez eta 2-3 metroko goratasuna hartzen duelarik. Hala ere 30 hektaretatik bat erre izan da.

Atletismoan emaitza bikainak

Berrikitan cross country, 60 metro hesi eta heptatloneko xapelketak iragan dira, eta Azkaindariak ez dira bazterrean gelditu. Cross-Country lehiaketan 3 gazte Frantziako erdi finaleraino arribatu dira: Antoine Cognaud, Peio Arribillaga, eta Fabrice Latapy.

Barneko lehiaketan Bordalen, Peio Duhalde, Elorri Larroquet eta

Lorentxo Larrañagak beren errekorra pertsonalak hobetu dituzte 60 m hesi lehiaketan. Pierre Urangak Frantziako xapelketako 6. tokia hartu du diziplina berean.

Anoetan Donostian, Euskadiko xapelketan Larrañagak heptatloneko 3. tokia lortu zuen joban den abendoan. Entrenatzailea (Pierre Uranga) pozik agertzen da, elgarrekin egin lanari esker emaitza onak azaltzen direlako.

FLASH

Sagardotegira joateko autobusak

Ideki taldeak eta Zirimolan elkartek bi ateraldi antolatzen dituzte, bakotxak bere aldetik. Martxoaren 3an Ideki-arentzat eta martxoaren 10an Zirimolanentzat.

Saskibaloia

Saski Baloian neskek taldeko lehen segitzen dute. Aurten ere xapelketa irabazteko eta goragoko mailarat pasatzeko okasionea dute neskek. Jadanik 10 matxa dituzte eginik eta taldeko lehenak dira. 5 matxa gelditzen dira oraino. Gizonak aldiz hamarretarik 6.ak gelditzen dira.

Errugbia: «Nahi badute lortzen ahal dute»

2. fasea gaizki hasi dute Azkaindariak errugbian. Urtarril osoa garaienik gabe iragan dute. Baina otsailaren 10ean Arrangoitzeren kontra 15-9 irabazi zuten. Jeannot Hiribarrenentzat orai arte jokolariek ez zuten beren maila erakutsi, eta azken matxa hortan, kalifikatzeko gaitasunak dituztela erakutsi zuten. 5 matxa gelditzen dira, haietarik 3 Azkainen egingen dira. «Xantza guziak Azkaineren alde dira oraino».

Bakailuak

Inportazioko bakailua

Kalitate onena • Faroe irletakoa

• bakailu gezatua bere puntuan

Enkarguak hartzen dira

San Juan Plaza, autobus geltokian
Tel: 943 627131 • IRUN



Tel.: 948 456 080

Faxa: 948 450 334

DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

JAIOTZAK

Elorri Astruc, Senperekoa, abendoaren 26an.

Chloé Océane Elissalde, Senperekoa, abendoaren 6an.

Maitena Exposito, Senperekoa, abendoaren 9an.

Alizée Annie Jeanne Machaez, Senperekoa, abendoaren 12an.

Ibai Laborde, Senperekoa, abendoaren 18an.

Emeline Legagnoa, Senperekoa, urtarilaren 22an.

Marjorie Arribillaga, Senperekoa, urtarilaren 30ean.

Naroa Campos Barriola, Leitzakoa, urtarilaren 25ean.

Kelly Yarina Lopez Muenala, Leitzakoa, urtarilaren 13an.

Izaro Larralde Ibarra, Berakoa, urtarilaren 26an.

Irati Ibarra Dagerre, Berakoa, otsailaren 2an.

Josu Arraztio Peris, Doneztebekoa, urtarilaren 24an.

Lorea Bazterrika Legazkue, Iturengoa, urtarilaren 26an.

Oier Urrutia Ballarena, Erratzukoa, urtarilaren 25ean.

Andoni Otxoteko Perugorria, Etxalarakoa, urtarilaren 23an.

Uxue Iturrria Razkin, Etxalarkoa, otsailaren 9an.

Pablo Leza Iturbide, Etxalarkoa, otsailaren 10ean.

HERIOTZAK

Joseph Lasaga, Senperekoa, abendoaren 8an.

Javier Ezpanda, Senperekoa, urtarilaren 19an.

Pascal Henri Beauger, Senperekoa, urtarilaren 11an.

Didier Miranda, Senperekoa, urtarilaren 20an.

Joaquina Astibia Lasarte, Leitzakoa, otsailaren 8an, 85 urte.

Carmelo Leronés Mayordomo, Beran, urtarilaren 29an, 61 urte.

Maximo Aranguren Arbelaiz, Zubieta, urtarilaren 12an, 36 urte.

Amparo Sanchez Zaldain, Urdazubikoa, otsailaren 1ean, 94 urte.

Julian Huarte Otegi, Urdazubikoa, otsailaren 2an, 76 urte.

Narziso Mihura Karrikaburu, Urdazubikoa, otsailaren 8an, 95 urte.

Javier Iñarra Etxalar, Arraizkoa, Elbeten, otsailaren 5ean, 83 urte.

Justa Bergara Matxikote, Arantzakoa, urtarilaren 15ean, 84 urte.

Adoracion Roldan Martin, Lesakakoa, urtarilaren 21ean, 68 urte.

Mariano Ordoñez Aylagas, Berakoa, urtarilaren 22an, 82 urte.

Purificacion Fernandez Torvisco, Lesakakoa, urtarilaren 27an, 50 urte.

Jesus Mari Irisarri Danboriena, Etxalarkoa, otsailaren 2an, 22 urte.

Francisco Berrueta Altzugarai, Etxalarkoa, otsailaren 7an, 55 urte.

Vicente Herrera Aranaz, Sunbillakoa, otsailaren 12an, 60 urte.



EZKONTZAK

Anthony Mornier eta **Séverine Hubert**, Senperekoak, abendoaren 8an.

Javier Martikorena Rodelgo eta **Oihana Irigarai**, Senperekoak, urtarilaren 8an.

François Susperregi eta **Marie France Georgette Gauthrin**, Senperekoak, urtarilaren 31n.

Vicente Dominique Agirre eta **Sophie Sourisse**, Senperekoak, otsailaren 2an.

Victor Joaquin Etxaide Mortalena eta **Maria Ainhoa Migeltorena Etxenike**, Erratzu eta Berroetakoa, otsailaren 2an.

tupi tapa
© 948 63 11 88

GOZOTEGIA OKINDEGIA
SARL ETCHEONA
AZKAIN
Tél. 59 54 01 67



Narciso MIHURA KARRIKABURU

Urdazubin hil zen 2002. urteko
otsailaren 8an, 95 urte zituela.

*Narciso Mihura Karrikabururen
familiak mementu gogor hauetan
beraien samina eta elkartasuna
adierazi dieten guziei eskerrak
eman nahi die.*

FAMILIA.



TANATORIO BAZTANDARRA

Santiago 52
ELIZONDO

Baztan, Bertizarana,
Urdazubi eta Zugarramurdin
24 orduko zerbitzua tanatorioan
eta etxean prezio guzietan

© 900 704704

© 948 581959

DATUAK...

• **Iñaki Miura arraioztarra txirrindularitzan hasi zen duela 3 urte. Bizikletaren mundua arras gogorra iruditu zitzaion, eta lagun batzuen bitartez, Iruñako Hiru Herrin taldean korrika hasi zen. 19 urte ditu eta hurrengo denboraldian senior kategorian arituko da.**

• **Atletismoan ez du idolorik halere, Garin, bere entrenatzailea erreferentziatzen hartu du.**

• **Atletismoaz bizitzea zaila iruditzen zaio, berarentzat hobya da, horretaz bizitzeko estatuko hoberena izan behar litzatekela uste du.**



JUAN CARLOS MORTALENA

Iñaki MIURA *Arraiozko korrikalaria*

«Gasteizen izanen den Espainiako Kros Txapelketara joateko esperantza badut»

Rakei GOÑI

Otsailaren 10ean Nafarroa eta Euskadiko kros txapelketak ospatu ziren Tuteran eta Ortuellan. Pasa den urterarte Nafarroako korrikalariak bietan parte hartzeko aukera izaten zuten. Aurten hautatzera behartu dituzte, eta kirolariak izan dira kaltetuenak. Iñaki Miura arraioztarra korrikalari horien artean dago eta arras triste azaldu da bi probatan ezin parte hartzeagatik. “Politika eta kirola nahasi dituzte, joan den urteko moduan egin behar zuten, Nafarroakoa egin eta hurrengo astean Euskadikoa, horrela bietan parte har dezakegu eta denak kontent. Aurten bat edo berte hautatu behar izan dugu. Azkenean korrikalariak izan gara galtzen atera garenak. Tuterara gan zirenak triste, eta gu Ortuellara gan ginenak, nahiz eta arras giro ona egon, triste ere.” azaltzen du Miurak. Euskadiko Kros Txapelketan uste baino ahulago ibili da Iñaki, halere maila handiagoan korrika egitea nahi izan

Nafarroako probatan egun txarra izanez gero irabazten ahal didate. Euskadin probak aunitz prestatu behar izaten ditut, maila aise onagoa da

du. “Nahiko aitzinean hasi nintzen, erritmoa nahiko fuertea zen eta pixkanaka atzera gelditu nintzen. Hamahirugarrena ailegatu nintzen, espero nuen hobekixago ibiltzea” aipatzen du arraioztarrak.

NAFARROAN ARERIORIK GABE

Aurten Nafarroan, junior mailan, ospatu diren 4 probetatik 3 irabazi ditu Miurak. Laugarrenean ezin izan zuen parte hartu Euskadiko txapelketan zegoelako. Osasuntsu dabilenean korrikalari arraioztarrak ez du areririk Nafarroan. “Hemen arras ongi moldatzen naiz, azkenekoa izan ezik, pro-

ba guziak irabazi ditut, baina Euskadin bada Nafarroan baino jende onagoa, maila nahiko ona da. Nafarroako probatan egun txarra izanez gero irabazten ahal didate, baina Euskadin beti arras ongi ibili behar naiz, probak aunitz prestatu behar ditut eta horrez gain suete pixka bat izan behar dut irabazi nahi badut” azaltzen du Iñakik. Nafarroan juniorretan hobere-na dela ez dago zalantzarik baina oraindik ez daki Espainiako txapelketarako hautatuko duten. “Espainiako txapelketa, taldekakoa hurrengo astean dugu, eta banakakoa Gasteizen da hiru aste barru. Ez dut erraten ahal Espainiako txapelketara eramaten nauten edo ez, esperantza behinpin badut, ez dut uste kanpoan utziko nautenik”.

Azkeneko urtea da Mihurarentzat junior mailan, hurrengo urtean seniorrekin arituko da, hiru urtez promesa izanen delarik, heldu den urtean aunitz sufrituko duela uste du Iñakik.

PILOTA

III. Paxaka txapelketaren finala martxoaren 2an jokatu da

Iruritako Aranabia pilotaplazan, arratsaldeko 6etatik aitzin

Azken txanpan sartua da III. paxaka txapelketa. Hasierako fasearen ondotik, joan den larunbatean jokatu dira final laurdenetako partidak, lehen fasean lortutako sailkapenaren arabera (multzo bateko lehena bertzeko laugarrenaren kontra...). Larunbat honetan, otsailak 23, jokatu dira finalerdia Iruritako Aranabia pilotaplazan, arratsaldeko 5etan eta 6etan. Final nagusia, berriz, martxoaren 2an jokatu da leku berean, arratsaldeko 6etan. Aitzinetik, hirugarren postua erabakitzeko partida jokatu da.

Lehendabiziko fasean izan da ezustekorik. Handiena, lehen urtean txapeldun eta iaz finalista izan ziren Arraztoa, Artazkoz eta Etxeberriak



AITOR AROTZENA

Joan den urteko txapeldunek, Iruritako Urrutia anaiak eta Elizaintzinek Gipuzkoako hirukotearen kontra jokatu dute final laurdenetako partida.

eman dute, oraingoan final laurdenetatik kanpo gelditu baitira. Lehenbiziko multzoan, honela sailkatu ziren lehendabiziko lau hirukoteak: Franzesena, Un-

nua eta Urtasun; Etxenike anaiak eta Iñarrea; Garcia, Iparragirre eta Aizpurua gipuzkoarrak; eta Gamio, Larnagarrak eta Bergara. Bigarren multzoan: Oizko

Mendiola anaiak eta Fagoaga; Urrutia anaiak eta Elizaintzin (joan den urteko txapeldunak), Etxandi, Prim eta Alfarro; eta Zabaleta, Ripa eta Santxotena.

FLASH

Juan Carlos Garro

Mendi bizikletako lehen proban garaipena lortu zuen BH taldeko txirrindulari beratarrek otsailaren 10ean Madrilgo Valdemorillo herrian. Garrok ez zuen areririk izan eta lehendabiziko itzulian ihes egin zuen tropeletik. Bigarren Ivan Alvarez taldekidea izan zen.

Bigarren mailako eskuz binakakoa

Aste honetarako hasi da bigarren mailako eskuz binakako pilota txapelketa, final laurdenetako partidekin. Eskualdeko pilotariei dagokienez, Joxe Jabier Taberna lesakarrak Mu-ruamendiaraz-ekin jokatu du Uharte Arakilen Aio eta Gorritiren kontra larunbatean. Egun berean, Arrasaten Jexux Retegi eratsundarra eta Albizuri, Etxaniz II eta Jexux Mari Almandoz lesakarraren kontra aritu dira. Aitor Ben-goetxea leitzarra Arbizurekin aritu da Mikel eta Galarza IV.ren kontra.

Inaxio Errandoneak ez du Asegarcek eskaintako kontratua onartuko

Enpresak urtebeteko kontratua eta baldinza kaxkarragoak eman dizkio aukeran

Inaxio Errandonea Alkaigako pilotariari martxoaren 3an akautuko zaio Asegarcerekin duen kontratua. Enpresak urtebeteko eskaintza egin zion, baldintza ekonomiko kaxkarragoetan eta aunitz pentsatu ondotik, ezezkoa ematea erabaki du Inaxiok. «Alde batetik

normala da diru guttiago eskaintzea, baina kirol aldetik ere, irailetik aitzinera ez naiz batere eroso sentitu jarri dizkidan zenbait partidurekin eta horrek ilusioan eta motibazioan eragiten du. Aunitz pentsatu eta eskaintza ez dut onartu». Enpresa honen lotura hautsiko

duen arren, pilotan segitzea gustatuko litzaioke Errandonea l.ari. «Fisikoki ongi nago eta berte urte bat edo pare bat segitzea gustatuko litzaidake. Asperekin zaila izanen da, baina berte bi enpresa tikiagoak gelditzen dira eta udan herrietan honerakin ibiltzea gelditzen

zait. Gainerakoan, neronek erakustaldi partiduak ere antolatzen ahal dutut».

Inaxio Errandoneak lau aldiz irabazi du eskuz binakako txapelketa. Eskuz banakoan bi aldiz ailegatu da finaleira eta lau terdiko txapelketan behin. «Barkarka titulurik lortu ez



ARTXIBOKOA

Inaxio Errandonea ez du Asegarceko pilotaria izanen martxoaren 3tik aitzinera.

izanak pena ematen dit. Hurbil egon nintzen, baina ez nuen lortu».

AGENDA

egunez egun

NAFARROAKO BERTSO LIGA

LESAKA

Otsailaren 22an ortzirala, Arranon 9.30etan. Estitxu Arozena, J.M. Lopez, Julen Zelaieta, Lerea Bruño.

ZUGARRAMURDI

Martxoaren 2an Ortzegun gizen, otsailak 11 eskea eta otsailak 12 desfilea

ERAKUSKETAK

BERA

Otsailaren 15etik 23ra Xabier Erkizia eta Asier Gogortza. (Argazki estenoepikoa eta musika) Kultur Etxean

ELIZONDO

Otsailaren 28 arte Marco Polo erakusketa. Arizkunenean. 18:00-20:00

KONTZERTUA

BERA

Martxoaren 2an larunbata, Kultur Etxean 22:00etan Onddo eta Ziorek

ANTZERKIA

BERA

Martxoaren 3an igandea, Haurrentzako antzerkia. "Ahate itsusia". 18:00 kultur etxean. Lamixine bat taldearen eskutik

LIBURUAK

BERA

Martxoaren 1ean. Bidaia bat liburutetara. Harkaitz Cano idazlea: "Piano gainean gosaltzen". 19:30 liburutegian

GUARDIAKO FARMAZIAK

Otsailaren 18tik 24ra

Lesaka, Doneztebe (Mendia, Merkatarien k.1), Arizkun Leitza eta Goizueta.

Otsailaren 24tik martxoaren 3ra

Bera (Fdez. Arantxa), Sunbilla, Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

TELEBISTAKO TXOKOA



LESAKA, BERA, ETXALAR, DONEZTEBE...

Inautez-inaute bestan murgildua Ttipi-Ttapa TB

DONEZTEBE

Otsailaren 8 eta 9an Doneztebe mozerro eta disfrazekin beteko da. Seguruenik Bin Laden ere, Doneztebetik agertuko da. Zaltzarik ez izateko begiratu Ttipi-Ttapa telebistaren emisioa, de-tallerik ez da faltako.

LESAKA

Otsailaren 7an Ortzegun Gizen-ean arraultze-arraultze eskaka ari-tuko dira haurrak. Inauteak otsai-laren 9an hasiko dira. Biharamu-nean Zakozaharrek herriari itzulia emanen diote euren belarrezko gorputz lodiekin. 11n, astele-hena, karroza desfilea izanen da eta astelehen eta asteartean Frain-



DISKAK



«Nori egin so»

Labrit

OIHUKA

Labriten bigarren diska Elkarlanean estudioetan grabatua dago, nahas-ketak urriaren bukaeran egin ziren eta aurkez-pena azaroan egin zen. Proiektu honetan Labrit talde berriarekin aritu da, bertze soinu bat lortu nahirik. Moldaketa eta produkzio lanak Kandi Fernandezek (Baldin Bada, Minxoriak, Sus-traia...) egin ditu, honen eraginez Labriten musika sendotasunean irabazi du. Aurreko diska-ko folk ukituak desagertu dira. Pop eta rock-a nahastu ditu, baina entzulea benetan nahasten duena bere ahots zo-ragarria da. Indartsua-go, lasaigo eta ke-mentsuago dator talde-lanari esker. Kandik pro-gramatu ditu kantak eta baita sintea jo ere. Da-nik, gitarra jo eta hiru kan-ta konposatu ditu. Juan-jo "Momau" k baxoa jo du eta bosgarrena taldean Jimmy Arrabit izan da.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Otsailaren 1etik 8rako prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea (19 kilo): 43,00 €

Zerri gizona (95-100): 0,93 €

Zerramak: 0,41 / 0,41 € kilo, bizirik.

BEHIKIA



Aretze gizenak: Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,46

1.koa 3,34

2.koa 3,22

Urruxak: Pta/kg. Kanal

Extra 3,52

1.koa 3,40

2.koa 3,28

Oharra: Prezioak 200-230 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):

Mestizoak: urruxak 234,29 € eta idixkoak 222,37

€. Nabarrak: urruxak 222,36 € eta idixkoak 160,29 €.

Zaldikoak: €/k

Sortuberriak: 3,01/3,07 Zaldi-behorak: 1,92/1,98

Bildotsak: €/k

6-8 kilokoak: 4,60/4,90 8-10 kilokoak: 4,15/4,45



Helbide berria

Enpresendako aholkularitza zerbitzu integrala

31700 Elzabara

Tel./fax: 948 630252

Enpresendako aholkularitza zerbitzu integrala

Enpresendako aholkularitza zerbitzu integrala

- Fiskala
- Kontablea
- Laborala
- Autonomoak
- Enpresa berriak sortzea



Zonaldeko aholkularitza zerbitzua

- IRPF
- BEZ (IVA)
- Elkarte Zergak
- Autonomoak
- Enpresa berriak sortzea
- Partikularrendako errenta deklarazioak

Bidasoa 41 • BERA

Tel: 948 630201 • Faxes: 948 630252

e-posta: asesoria@ugaldea.com

00-34 **948 63 11 88**

Sail honetan iragarkia jartzeko 6,30 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 6,30 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapara igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZITAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

BEINTZA-LABAIEN. Ba-
serria lur eremuarekin sal-
gai. ☎ 948 450 039

BERA. Pisua salgai Ibaial-
de karrika 6-5.D. 80m². Pre-
zio negoziagarria. ☎ 948 631
468

BERA. Pisua salgai Legia

BERA. Etxea, lur
eremuarekin salgai.
Herrian bertan.
Prezio interesgarria.
☎ 607 978656

SUNBILLA. Eraikitzen
ari den etxea, lur
eremuarekin salgai.

☎ 948 451841
☎ 607 978656

ADOS

- Eskaera handia
dagoenez, bordak,
baserriak,
lur-eremuak,
bajera etab.
erosi nahi dira.

☎ 948 451 841
607 978 656

ADOS

DONEZTEBE

Pisu berriak salgai.
Bigarren eskuko bi etxe.
5.500 m²ko terreno eraikigarria,
2 txalet egiteko aukera.

BERA

Pisu batzuk salgai,
14 milioi Pta.tik hasita.
Bajera 175 m² Alizate karrikan
☎ 607 978 656

karrika, 53 - 3. pisuan ☎ 696
753 366.

BERA. Pisua salgai Ezte-
gara Pasealekuan. 3. solai-
rue igogailuarekin. Sabaia-
rekin barmetik lotua. Eguzki-
tsua. 125m². Prezio onean.
☎ 948 630 251 • 679 774 971

BERA. Pisua salgai Plaza
Zaharrean, parrokiaren on-
doan. ☎ 948 631 193 (arra-
tsaldean)

BERA. Pisua salgai Age-
rran. Eguzkitsua, igogailua,
soto eta kalefakzioarekin.
Sukalde ekipatua, baje-
raren edo gabe. ☎ 948 630 885
• 625 705 556.

BERA. Pisua salgai. Ibaia
Karrika 6-3 ez. ☎ 948 630
943

BERA. Pisua Eztegar pa-
sealekuan eta **bajera** Legia
karrikan **salgai.** ☎ 948 631
065

ELIZONDO. Pisua salgai,
mobleztatua eta berritua. ☎
667 418 661

ETXEBIZITZAK

102 Erosi

BERA edo LESAKAN pi-
sua erosiko nuke. ☎ 669
180 779

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

BERA Pisua errentan har-
tuko nuke. ☎ 627 707 520
(Alexander)

BERA. Familia bakarra-
rentzako etxea edo pisua
errentan hartuko nuke, hila-
bete batez, Uztailan. ☎ 948
256 359

GARAJEAK/LOKALAK

109 Errentan eman

LEGASA. 450m²ko nabea
alokatzen da. ☎ 629 348 491
LESAKA. Inguru industria-
lean dagoen **100m²ko ba-**

jera errentan eman nahi da.
Bulegoa jartzeko egokia. Sar-
tzeiko moduan. Prezio inte-
resgarria. ☎ 948 634 114

BERA. Bajera errentan
eman nahi da. Alkaiagako
tunelaren ondoan. ☎ 678 445
490

LURRAK/ORUBEAK

113 Erosi

BERAn hektarea bateko
lur eremua eros genezake.
☎ 699 526 512

ZERBITZUAK

208 Bertzelakoak

Zure seme-alabak **harreta**
falta badu edo hiperakti-
boa bada, deitu ☎ 948 581
282 telefonora. Laguntza
emanen dizugu. A.D.H.I. el-
kartea.

LANA

301 Eskariak

LESAKA, BERA inguruan os-
tatu-jatetxe edo denda bate-
an lan egingen nuke, astele-
henetik ortziratera. ☎ 659 834
455

Neska bat eskaintzen da
adineko jendea zaintzeko
edo bertze edozein laneta-
rako. ☎ 677 742 749.

Neska arduratsua eskain-
tzen da interna edo extena
moduan lanean aritzeko. ☎
653 210 160

Paperak dituen neska ar-
duratsua eskaintzen da in-
terna edo extena moduan
lanean aritzeko. ☎ 649 770
304

Emakumea ekaintzen da
edozein lanerako. ☎ 630 781
903

36 urteko **emakumea es-**
kaintzen da interna edo ex-
tena moduan aritzeko. ☎ 669
831 325

Kotxea duen **zerbitzaria es-**

kaintzen da. ☎ 948 625 152

LANA

302 Eskaintzak

BERA. Sukaldaria behar da
jatetxe batean. ☎ 948 625 472

IBARDIN (BERA). Frantse-
sa dekien neska behar da ben-
ta batean, dependienta lane-
an aritzeko. ☎ 619 829 289
(Oskia)

Emakumea behar da, etxe-
ko lanak egin eta haurrak zain-
tzeko. ☎ 948 635 244 (arra-
tseko 8etatik aitzin)

BERRIZAUN. Etxeko lanak
egin eta 2 haur zaintzeko **per-**
tsona bat behar da. Nahia-
go euskalduna edo bertakoa
bada. ☎ 948 627 601 (deitu
arratsetan)

Aluminio enpresa
baterako
komertziala
behar da

☎ 948 510 711 fax

BERA. Jatetxe batean su-
kaldari eta zerbitzaria behar
dira epe luzerako. Lan Orien-
tazio Zerbitzua: ☎ 619 829
289 (Oskia)

IRAKASKUNTZA

401 Eskaintzak

Bateria klaseak ematen di-
ra goiz eta arratsalde. ☎



617 909 614

MOTORRA **501 Salerosketak**

Bi moto salgai, Yamaha YZ 250 cc 1997koa eta trialezko Gas Gas 320 cc, 1998koa. Biak ere hagitz egoera onean. ☎ 948 637866 (German).

Renault 19 16V, 140 zaldi. SS-AN. Urdin kolorekoa. ☎ 658 701 815

Volkswagen Golf VRG ko-
txea salgai. Egoera onean. ☎
619 762 096

Lada Niva 1600 salgai. Mer-
ke merke. ☎ 607 978 656
Ongi dagoen **Renault Sa-
frane** bat salgai. ☎ 948 580
491

MOTORRA **502 Tailerrak**

BAZTAN MoToR ☎ 948 452 119 • IRURITA

Aukera handia
bigarren
eskuko
kotxetan.

MENDAUR MOTOR ☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:
Opel Astra, Astra DTI, Galloper 5
ate, Astra 1600 club, Megane TDI,
C15 Terrano II 125 cv
SUZUKIAK ETA VITARAk AUKErAN

ANIMALIAK **602 Saldu/Erosi**

Collie zakurkumeak sal-
gai. ☎ 948 637 461

Ehiziko **setter zakurkumea**
erosiko nuke. Ahal bada xu-
ri-beltza. ☎ 948 630 553
(eguerditan)

Behi gaztea salgai. Otsaila-
ren 26an, 9 hilabete emari
eginen ditu. Grisa da. Gal-

detu Lesakako frontoi ondo-
an. (Josetxo)

DENETARIK **701 Galdu/Aurkituak**

Urrezko pultsera bat galdu
da Baztanen. Gibeletik
29/11/98 data du. ☎ 948 580
802

Donezteben errege kabal-
gata egunean **urrezko eraz-
tuna (anilloa) galdu zen**
elizatarian. Aurkitu duenari
sari ona emanen zaio.
☎ 617 461 649 • 948 451
846.

DENETARIK **702 Salerosketak**

Eraikuntza negozioa uzten
dugunez: hormigonera, za-
baltzen den erregela, "On-
da" bibratzailea, "Stihl" ho-
migoiebakitzailea, "Hitachi"
eta "Mango" demoleedorak,
50mmko "Hitachi" taladroa,
"Topeon" laser nibel osoa,
moladora, 350 eta 100 kilo-
ko grua berriak salgai. ☎ 948
610 907

Seilu bilduma salgai. Bortz
koaderno eta osagarriak.
1973tik hasitako seiluak. ☎
948 630 167 • 656 773 013
(mezua utzi erantzungai-
luan)

Bi ilar klase salgai. Bat go-
rria eta beltza. Bakoitzatik
30 bat kilo. ☎ 948 630 553
(eguerditan)

Trikitixa salgai. Estrenatu
gabea ☎ 948 637 780

Ittxaur plantak salgai. 200
inguru. ☎ 948 450 974

DENETARIK **703 Bertzelakoak**

Web orriak, CD azalak, kar-
telak, tarjetak, logotipoak
egiten ditut. ☎ 948 627 635
• 661 426 076 (Patti)



manelsa

elektrizitate industrial

**Instalazio eta muntaia
elektrikoak**

Mantenimendua

Automatismoak

Iluminazioa

Amaiur 2, behea
Sakelekoa: 686 466 865
31700 ELIZONDO

Artekale 22, behea
Tel. eta faxa: 948 301 025
Sakelekoa: 686 466 866
31195 BERRIOZAR (Nafarroa)

M rtx k
2
L run t



BORDATXON






EIDER PIKABEA
MITXELENA
otsailaren 14an
9 urte bete ditu.
Zorionak eta
muxu handi bat
Joseba, atta
eta amaren
partetik.



JEAN LOUIS AZARETE
azkaindarrak
apirilaren 3an
urteak beteko
ditu. Zorionak
eta muxu handi
bat familiaren
partetik.



MAIDER AZARETE
azkaindarrak
16 urte
beteko ditu mar-
txoaren 8an.
Zorionak eta
muxuak familiaren
partetik. Ongi
pasa Emaztearen
Eguna.



AINARA FERNANDEZ GARCIA
otsailaren 27an
5 urte beteko
ditu. Zorionak
aita eta amaren
partetik.



JON ERRO FAGOAGA
lesakarrak
otsailaren 27an
5 urte beteko
ditu. Zorionak
aita eta amaren
partetik.



FELIX EGUES
zorionak! Nork
erran behar
zigun xanto
aurpegi
horrekin gure
Felix horren
rebeldia ateri
behar
zitzaigula.



MIKEL EGUES
Ez dugu
ulertzen
zergatik aldatu
zenun janzteko
era hori, hain
zinen ponpoxo.
Otsailak 13 urte
bat gehio.



JON UBURIA SARASOLA
otsailaren
21ean 5 urte
beteko ditu.
Zorionak Ai-
nhoa eta fami-
liaren partetik.
Aupa Beti Gaz-
te eta Real.



AIORA BIURRARENA
beratarrak
otsailaren 14an
5 urte bete ditu.
Zorionak Bera
eta Lesakako
familiaren
partetik. Aupa
potti.



MAITE ARRANBILLET GALTZAGORRI
Otsailaren
10ean 6 urte
eginen ditu.
Zorionak
familiaren
partetik.



JONAN
aunitz urtez!
eta muxu pila
bat.



ANDONI IRIBARREN INDABURU ETA IZAROK
otsailaren 21 eta 26an, 3 eta 7
urte beteko dituzte. Zorionak
eta muxu handi bat familiaren
partetik.



ANE TELLETXEIA IGOA
lesakarrak ur-
tea bete du
otsailaren
19an. Aunitz
urtez eta muxu
bat familiaren
eta bereziki Pe-
lloren partetik.



GEXAN PETRIRENK
martxoaren 3an
7 urte beteko
ditu. Zorionak
Aizearen
partetik.



IÑIGO OSKOZ
doneztebarrak
otsailaren 22an
6 urte beteko
ditu. Zorionak
familiaren
partetik.



IÑAKI LARRETXEA OLASKOAGA
Mugitua zara biño
siesta earrak
egitten ere
badakizu. Au-
nitz urtez Sen-
berroko fami-
liaren partetik.



IÑAKI LARRETXEA OLASKOAGA
arantzarrak
otsailaren 28an
2 urte beteko
ditu. Zorionak
eta muxu aunitz
gurasoen
partetik.



EIDER PIKABEA MITXELENA
otsailaren 14an
9 urte bete ditu.
Zorionak eta
mila muxu.
Clan Estacion.



JOSE LUIS GOÑI
arantzarrak
urteak bete
ditu otsailaren
16an. Zorionak
eta ongi pasa
zure eguna
atta-ama eta
Amiaren par-
tetik.



ASIER GOIA DEL MORAL
beratarrak
otsailaren 28an
5 urte beteko
ditu. Zorionak
eta muxuak!



ROSA BELZUNEGI

PSIKOANALISTA

Kontsultarako eskatu ordua

☎ 948 580 975

Jaime Urrutia 42-2.D
ELIZONDO

MANU

AKUTXILATZEAK
BARNIZATZEAK

Aurrekontuak loturarik gabe

☎ 948 630 258

☎ 656 411 075



TUBOAK

ZIRI GIDARIAK

GAZTAIN
PIKETEAHESIETAKO
SAREAKLORATEGI ETA
ZERRAKURA
MATERIALAKEslava Karrika, 15
☎ 607 842 709 ☎ 610 836 534
31320 MILAGRO
(Nafarroa)BERAko UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERAARAU SUBSIDIARIOAK ALDATZEA, AGERRA
AUZOAN, U.U.24, (9. P. 16. 17. 904. eta 905. L)
HASIERA BATEZ ONARTZEA: M. Mª LARRECHEA

2002ko urtarilaren 24an Udalbatzak egindako osoko bilkuran, ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

1. MIGUEL Mª LARRECHEA ORDOQUIK sustatutako Arau Subsidiarioen aldaketa, U.U.24 sortzen duena, hasiera batez onestea.
2. Aipatu aldaketa hilabeteko epean jendaurrean jartzea, Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarietan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurrez aurreko iragarkia jarrita.
3. Arau Subsidiarioen aldaketa honek eragindako zonaldean, hots, 9. poligonoko, 16., 17., 904. eta 905. lur-zatietan, obra baimenak ematea eten gelditu direla seinaleztatzea.
4. Hasiera batez onartutako aldaketa hau Donostiako Ur Komisaritzara bidaltzea behar den txostena egin dezan.
5. Erabaki hau U.U.24ko jabea eta interesatuei bidaltzea.

Bera, 2002.02.01

Behin-behineko alkatea
Javier Leiza OteizaBERAko UDALA
AYUNTAMIENTO DE BERAARAU SUBSIDIARIOAK ALDATZEA,
BIDASOA KARRIKAKO 58.enean
HASIERA BATEZ ONESTEA:
PETRIX GESTION INMOBILIARIA S.L.

2002ko urtarilaren 24an Udalbatzak egindako osoko bilkuran, ondoan dagoen erabakia onetsi zuen:

1. PETRIX GESTIÓN INMOBILIARIA S.L.k sustatutako Arau Subsidiarioen aldaketa, Bidasoa karrikako 58. eneko eraikia, Petrixenea, kategoriaz aldatzeko, hasiera batez onestea.
2. Aipatu aldaketa hilabeteko epean jendaurrean jartzea, Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarietan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurrez aurreko iragarkia jarrita.
3. Arau Subsidiarioen aldaketa honek eragindako zonaldean, hots, 9. poligonoko 201 A) lur-zatian, obra baimenak ematea eten gelditu direla seinaleztatzea.
4. Hasiera batez onartutako aldaketa hau Donostiako Ur Komisaritzara eta Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentura bidaltzea behar den txostena egin dezaten.
5. Erabaki hau interesatuei bidaltzea.

Bera, 2002.02.04

ALKATEA, J.J. Goya Echeverria

TOKI ONA *Institutua* **BERA**

Aurreinskripzioa:

- **D.B.H.:**

Otsailaren 25etik martxoaren 15era

- **BATXILERGOA eta ERDI ZIKLOA:**

Apirilaren 29tik maiatzaren 10era

- **Goi Zikloa:**

Ekainaren 3tik 11ra

Tfnoa.: 948 625 000



ESKUARAZ BIZI ETA IKASI

Aurreinskripzioa: Otsailaren 25etik martxoaren 15era

© 948 452 448
baztan@ikastola.net

**Nekazariak
eta Abeltzainak**



P.A.C. laguntzetarako Eskaera

**Gestore espezializatuen
aholkularitzarekin.
Bidera itzazu gure bulegoetan.**

Nafarroako Gobernuaren laguntzaz

www.can.es

NAFARROAKO  KUTXA